

# Latinetik hizkuntza erromanikoetara: euskararen hurbileko erromantzeak

Amelia Barquín  
Mondragon Unibertsitateko irakaslea

Hizkuntzalaritza erromanikoko sintesi lan labur-labur bat eskaintzen dugu hemen, euskararen hurbileko erromantzeek, latinaren seme-alaba diren heinean, izan duten bilakabidea azalduz. Gaztelania eta frantsesaren historiak hartuko du lekurik handiena, baina tarte berezia bilatu da hain ezagunak ez diren gaskoia eta nafar erromantzea ere aurkezteko.

In this synthetical work we explain the evolution of the Romance languages which were born in contact with Basque. Although most of it is devoted to the history of Spanish and French, there is also a section on less known Romance languages like Gascon and the Romance of Navarre.

## 1. Sarrera\*

Lan honetan laburki azaldu nahi dut latinetik euskararekin kontaktua izan zuten hizkuntza erromantzeetara gertatu zen bilakabidea, gaztelaniari eta frantsesari arreta handiagoa eskainiko diedalarik, gaskoiera (eta bere aldaera den biarnesa) eta nafar erromantzearen aipamen laburrago batekin batera. Nire azalpena ezin da lar zabala izan, hortaz hemen bakarrik funtsezkoak kontsideratzen ditudan datu batzuk aukeratzera behartuta izan naiz. Aukeratzeko orduan ez ditut soilik garrantzi handieneko ezaugarriak kontutan hartu, baizik eta latina eta gaztelania edo frantsesaren gramatika historikoa edota diziplina hauetako hiztegi teknikoa ezagutzen ez dutenentzat ulergarriagoak izan zitezkeenak. Lan hau sintesi lana denez azalpen luze edo konplikatuegiak izan ditzaketen aspektu batzuk alde batera uztea erabaki dut. Sinplifikazioak arriskuak ditu eta espero dut lan honek hizkuntzen bilakaerari buruzko ideia faltsurik ez sortzea; bitarteko prozesuak azalduko ez ditudan arren, ez nuke nahi aldaketak magiaren eraginez gertatu direla pentsatzea. Nolanahi ere, erabili behar ditugun oinarritzko kontzeptu batzuk azaltzea behar-beharrezkoa iruditu zait, edo, gutxienez, kontzeptu hauei buruzko erreferentziak ematea. Orobat saiatu naiz lan astun honi arintasuna emateko datu bitxi batzuk sartzen, ezinbestekoak ez baziren ere.

Lehenengo eta behin, gaia bere testuinguruan kokatu behar dugu.

## 2. Latina eta hizkuntza erromanikoak

Latina gaztelania eta frantsesaren (eta, definizioz, hizkuntza erromaniko guztien) ama-hizkuntza da, eta hizkuntza hauen hiztunak izango lirateke euren guraso eta garaikideengandik hizkuntza ikasi duten pertsonak osaturiko katea baten azkenengo maila; katea hau moztu gabe luzatu da Erromak Iberiar Penintsula eta gaur egun Frantzia deitzen dena orain dela bi mila urte inguru konkistatu zituenetik. Latina eta gaztelaniaren arteko erlazioa modu adierazkor batean azal daiteke, gaztelania latina besterik ez dela esanez: Europa, Afrika eta Amerikako zona jakin batzuetan hitz egiten den latinaren aldaera; gauza bera esan daiteke galego, portugez, katalan, frantses, italiara, errumaniera, eta abarrei buruz. Baina gaur egungo latinak dituen forma ezberdinak (hots, hizkuntza erromanikoak) elkarren artean ulertezinak izatera heldu dira eta, hortaz, hitz egiteko eta idazteko modu hauei ez zaie *latina* deitzen, hain ezberdinak diren hizkuntza hauentzako etiketa bakarra erabiltzea ez bailitzateke egokiena. Beste alde batetik, europar estatu ezberdinek ezaugarri linguistiko ezberdintzaileekin lotutako izendapenak erabili dituzte (*gaztelania*, *frantsesa*, etab.) kultur- eta politika-identitatea finkatzeko.

Hizkuntzen etengabeko bilakaeraren ideia azpimarratzeko egokia litzateke gogoratzea latina bera ez dela ezerezetik sortzen; hizkuntza erromanikoak senitartekoak badira ere eta latinetik datozen arren, latina beste hizkuntza familia baten barnean agertzen zaigu eta hizkuntza familia hori indoeuroparretik dator (hizkuntza honi ezin diogu lekurik eskaini, hala ere ikus Villar 1971: 1991). Adibide

---

\*. Lan hau 1996ko uztailan UEUren XXIV. Udako Ikastaroetan eskainitako hitzaldi batean oinarritua da. DBHn Kultura Klasikoa irakastsi behar duten irakasleak ziren ikasle ikastaro hartan.

tipikoa \**mater*<sup>1</sup> indoeuroparrarena da, honetatik sanskritoko *matar*, grekoko *meter*, alemaneko *mutter*, errusierako *mati*, lituanierako *mote*, latineko *mater* baitatoz. Azken honetatik gaztelaniako *madre*, italierako *madre*, galegoko *madre*, katalaneko *mare*, frantseseko *mère*, etab. Ez dugu ahaztu behar, gainera, gaur egungo hizkuntzen bilakaera ez dela gelditu, eta aldatzen jarraitzen dutela. Etengabeko jarraipen bat dago, oraindik amaitu ez den eta inoiz amaituko ez den garapen prozesu mantso eta etengabea.

### 3. Latin arrunta

Hizkuntza erromaniko bat (edozein izanda ere) ez da uniforme; baina latina ere ez zen inoiz halakoa izan. Hizkuntza guztiek aldaerak izan ohi dituzte hiru ikuspuntutatik: diatopikoki (espazioan), diakronikoki (denboran) eta soziologikoki (hiztunen adin, sexu, hezkuntza, lanbide eta abarren ondorioz). Aniztasuna giza-banakoari ere badagokio, egoera ezberdinen aurrean adierazmoldea egokitze erregistro ezberdinak baititu. Latinaren aldaketari buruzko frogak gutxi ditugu, idazten zutenek (ailegatu zaiguna idatzitakoa da, noski) *latin klasikoa* deritzon barietate landu edo literarioa erabiltzen ikasi baitzuten. Desberdintasun diakronikoak, ordea, nabarmentzeko errazagoak dira: idatzitako latinaren bilakaeraz ohar gaitzke garai ezberdinetako egileek erabiltzen duten hizkuntza konparatuz, esate baterako.

Baina, gainera, hizkuntza erromanikoak ez datoz latin idatzitik. Latin arruntaren kontzeptua, hortaz, baliagarria izango zaigu, beroni buruzko eztabaida asko egon bada ere, ikertzaileek beroni buruzko azalpen ezberdinak eman dituztelarik. Guri dagokigunez, latin arrunta ez bakarrik herri xeheak, baizik eta edozein lekutako klase guztiek ere hitz egindako latina izango da, orohar, literatur-latinetik desberdintzen delarik (hitz egindako euskara idatzizkotik desberdintzen den era berean). Latin arrunta, gainera, ez zen inoiz homogeneous izan, diferentziak aurkezten zituelarik. Alde batetik, aldakorra zen gizarte-estamentu edo taldeen arabera: patrizioen senitarteko latina ez zen nekazariarena edo gladiadorearenaren berdin-berdina. Beste alde batetik, probintzia bakoitzean ezaugarri ezberdinak aurkezten zituen, probintzialismo askorekin batera. Lexiko-adibide xume eta oso ezagun bat gogoratzearen, latin landuan (hots, klasikoan) *equus*-ek 'zaldi' esan nahi zuen, baina kontzeptu honentzako forma erromanikoen ez dute horrekin zerikusirik (gazt. *caballo*, port. *cavalo*, fr. *cheval*, it. *cavallo*, errum. *cal*, etab.); hauek guztiak *caballus*-etik datoz, latin klasikoan 'lanerako eta zamaketarako zaldia'-ren esanahia eta kutsu gutxiesgarria zuelarik (irendutako zaldia ezarri ohi zitzaion-eta), hizkera arruntan 'zaldi'-aren zentzu orokorra hartu bazuen ere. *Equa* femeninoaren jarraitzaile batzuk gordetzen dira ordea: gazt. *yegua*, port. *égua*, etab. (baina fr. *jument*, it. *cavalla*). Hizkuntza erromanikoetan aurkitzen ditugun hitz asko ezin dira azaldu latin klasikora zuzenduz, latin arruntan batzuetan dokumentatua baina beste batzuetan ez dagoen forma baten ondorio baitira, aurrerago ikusiko dugun bezala.

---

1. Hemendik aurrera komeni zaigunean hemen bezala erabiliko dugun izartxoak forma proposatua eta, hortaz, lekukotasunik gabea dela esan nahi du (indoeuroparrari dagokionez ezin da bestelakorik egin, hizkuntza honenganako gerturaketak hipotesien gainean eraikitzen baitira).

Denboraren poderioz, leku ezberdinetan geroz eta ezaugarri desberdinduak eta lekuan lekuko bereizitasunak dituen latina hitz egiten da; K.o. IX. mendetik aurrera gutxi gora-behera latinaren oinordeak diren hitz egindako edo idatzitako herri-aldaera hauek *erromantze* bezala izenda ditzakegu. Hizkuntza erromanikoak ez dira latin arruntaren seme-alabak, baizik eta latin arruntaren beraren aldaerak. Hizkuntza erromanikoen aurrekoak osatzen dituzten hizkera-modu ezberdinak *protoerromantzetzat* har ditzakegu<sup>2</sup>.

#### 4. Erromaniaren zatiketa

Zeintzuk izan ziren latinaren zatiketaren zergatiak? Espazio linguistikoen eraketa prozesu luze eta korapilatsu baten emaitza dugu. Tiber ibaiaren ertzetan kokatutako erdigune txikitik zabaltzerakoan, lehenengo Italia eta gero Erromania bihurtuko zen lurralde handian zehar, aldaketa nabarmenak jasango zituen, jadanik K.o. V. menderako. Adibidez, erromatarkuntza Hispanian K.a. III. mendean hasten da eta, bilakaeraren ikuspuntutik, latina mende bat beranduago Galiaren erromatarkuntza hasten denean, edo K.a. I. mendean (Galiaren konkista burutzen denean hain zuzen) baino aurreragoko fase batean zegoen. Gainera, leku batzuetan erromatarkuntza eta latinizazio prozesua beste batzuetan baino osatuagoa izan zen eta bere iraupena ere lurralde bakoitzean desberdina izan zen.

Herialde erromanikoen historia amankomuneko bost mende hauetan zehar berrikuntzak sartu ziren latinizatu ziren lurraldeetan: kontuan hartu Inperioaren lurralde ezberdinetara emigratu zutenak ez zetozeela Erromatik bertatik bakarrik, baizik eta baita latinizatutako beste eskualde batzuetatik ere; gainera erromatarkuntza prozesuetan gizarte-talde jakinen nagusigoa ezberdina izan zen, etab.

Honetaz gain latinak hizkuntza indigenekin izan zuen kontaktua hartu behar dugu kontuan: substratuak garrantzi handikoak dira. Hasiera batean latina hizkuntza indigena horien gainean ezarri zen, geroago ordezkatu zituelarik, baina hizkuntza horiek hizkuntza berrian aztarnak utzi dituzte: horiei deitzen diegu substratu. Gogoratu hizkuntza-aldaketa batek hainbat belaunalditan zehar luzatzen den elebitasun garai bat ekarri ohi duela eta elebitasun horrek hizkuntza berrian aldaketak sar ditzakeela: adibidez gaztelaniazko hasierako *f*-aren galera euskal substratuari egotzi ohi zaio (Menéndez Pidal-ek azaldu zuen bezala, gaur egun teoria hau oso eztabaidatua bada ere). Konkistatutako probintzietan erromatarrek aurkitu zituzten populazioak oso jatorri ezberdinekoak ziren: iberokoak (sarritan zeltekin nahastuak) Hispanian, zeltak Galian, trazioak eta ilirioak Balkanetan, etab., hauek guztiak hizkuntza oso ezberdinak hitz egiten zituztelarik.

---

2. Latinetik hizkuntza erromanikoetarako bilakabideari buruzko sarrera labur, argi eta erabilkorra da Penny 1993: 1-5. Ez dugu erabiltzen, ordea, latin arruntari buruz duen ikuspuntua, berarentzat errealitate soziologiko bat, hots, eskolen irakaskuntza eta eredu literarioen eraginik ez zuten gizarte-taldeek soilik hitz egiten zutena baita. Hala eta guztiz ere, geroago latin arruntari buruz azaltzen duena bai erabilgarriagoa suertatzen dela, adibidez beronen ezaugarriak argitzeko erabil daitezkeen informazio-iturriei buruzkoa, etab. Ikus baita Tagliavini 1973: 291-304 eta Väänänen 1982: 25-39.

Deskonposizioa K.o. III. eta bereziki V. mendetik aurrera bizkortu zen germaniarren inbasioei esker, Erromatar Inperioaren gainbehera eraginez. Iparraldeko herri (edo barbaro direlako) hauek erromatar probintziak inbaditu zituzten eta bertan ezarri ziren. Frankoek Galiaren iparraldea okupatu zuten; bisigodoek hegomendebalde eta Hispania, burgundiarrek Galiaren ekialdearen erdiko aldea; ostrogodoek eta longobardoek Italia eta Retia, etab. Germaniar herrien ekintzak komunikabideen haustura ekarri zuen eta honen ondorioz Inperioko eskualdeen arteko loturak ahuldu egin ziren. Aldi berean latin arrunta erlatiboki batua mantentzen zuten lokarriak gero eta gehiago makaldu ziren: eskola (zeinetan lekuan lekuko eliteen semeak hezitzen baitziren) desagertzen da, administrazio zentralak indarra galtzen du eta Erromaren orde besterik ez dagoen erdigune politiko batzuk eratzen dira. Herrialde erromanikoetan ezartzen diren herri germanikoak bertako biztanle erromanikoekin nahasten dira, baita linguistikoki ere, eta modu honetan hizkuntzan joera berriak txertatzen dituzte. Superestratua dugu: gero galtzen den inportatutako hizkuntza batek jatorrizko hizkuntzaren gainean eragina du, eta hau izan zen barbaroen inbasioen garaian latina eta germaniar hizkuntzen artean gertatu zena hain zuzen. Latina ikasten duten herri hauek ematen diote ez bakarrik euren lexikoaren zati bat, baizik eta baita ahozkatzeko ohiturak ere. Hau guztiaz gain adstratuaren eragina ere kontuan hartu beharko dugu, hau da, latinarekin edo latinaren ondoan bizi izan ziren hizkuntzena (adibidez, arabiera Espainian).

Honela, Inperioaren zatiketarekin, probintzia ezberdinetan hitz egiten zen latinaren arteko diferentziak sakondu egin ziren, eta une batetik aurrera ez zen jadanik hitz egin erromatarrek ekarritako latin bera, aldaera erromaniko ezberdinak baizik. Orokorrean, espazio erromanikoek germaniarren inbasioen ondorengo hiru mendeetan hartu zuten forma zehatza; substratuen aniztasunak, latinaren beraren barne-ezberdintasunek eta Erromaniako lurraldeen erromatarkuntza maila desberdinek prozesua prestatu zuten. Neolatindar hizkuntzen sorrera eta finkapena Ertaro betean gauzatu zen<sup>3</sup>.

## 5. Lehenengo testu erromantzeak

Euren hizkuntza jadanik ez dela latina pentsatzeko kontzientzia adierazten duten errealitate erromantzearen lehenengo lekukotzak IX. mendearen inguruan agertzen dira eta honek hizkuntza erromanikoak garapen bete-betean zeudela erakusten digu. Izan ere, IX. mendearen erdialdean Frantzian guztiz erromantzea den dokumentu bat aurkitzen dugu (zehazki zein zonatako erromantzea den zehazki esaten ez badakigu ere), hizkuntza arruntean nahita idatzia. Strasbourg-eko Zin Egiteak dira: idatzi honetan Luis Germaniarra (ekialdeko frankoen erregea) eta Karlos Burusoila (mendebaldekoena) anaiek, Luis Errukitsuaren semeek, euren anaia Lotarioren aurkako batasuna berri zuten, Strasbourg-en inguruan hain zuzen. Dokumentua oso bitxia da: Luisek, germaniar hitzuna berez, frantsesez zin egin zuen, eta Karlosek, ordea, hizkuntza erromantzekoa bazen ere, alemanieraz zin egin zuen, bien gudaosteek uler zezaten; ejerzitu bien buruzagien juramentuak datoz gero, bakoitzak bere hizkuntzan zin egin zuelarik. Ez da harrizkoa guztiz erromantzeak diren lehenengo dokumentuen artean juramentu-formulak egotea,

---

3. Ikus von Wartburg 1971 (batez ere 189-193 orr. "ondorioak") eta Iordan eta Manoliu 1972: 17-74.

formula hauetan hitzen zehaztasuna eta argitasuna garrantzi handikoak baitira. Strasbourg-eko Zin Egiteek frantsesez idatzitako dokumenturik zaharrena osatzen dute eta baita lurralde erromanikoetan hizkuntza arruntean agertzen den lehenengo dokumentua ere.

Gaztelaniaren lekukotzarik zaharrenak X. mende erdialdekoak dira. Donemiliaga Kukulako (Errioxako mendebaldea) monasterioko Elizako Gurasoen bizitza eta prediku batzuez osaturiko latinezko eskuizkribu batean erromantzezko glosa ugari aurki daitezke, hots, marjinetan edo lerroen artean esaldi eta berben ulermena errazteko idatzitako azalpenak: gehienak ez dira hitz bakar bat baino, baina esaldi osoak ere badaude. Glosa Emilianenseak dira. Bi glosa euskaraz idatzita daude gainera; orain arte aurkitutako euskarazko lehen testuak dira. Pixka bat beranduagokoak Silosko Glosak ditugu, Silosko Santo Domingoren monasterioko X. mendeko eskuizkribu batekoak, Emilianensearen oso antzekoak<sup>4</sup>. Ez da harritzekoa latina hitz egiten zenetik gero eta urrunago zegoen momentu honetan (izan ere, liburuetakoa latina ia ulertezina gertatzen zitzaien) Erromaniako eskualde ezberdinetan latindar testuei erantsirik erromantze kementsuetan idatzitako glosak aurkitzea.

## 6. Hizkuntza erromanikoak

Erromaniako hizkuntzen sailkapena, lau talde handitan, eztabaida ezina da gaur egun: iberiarra, galiarra, balkaniarra eta italoerromanikoa. Hizkuntzak talde bati edo besteari lotzea, ordea, zailagoa da, muga argirik ez dagoelako eta talde batetik besterako igarotzea pixkanakakoa delako:

Balkanoerromantzea:	Errumaniera Dalmaziera
Italoerromantzea:	Italiera Sardiniera Erretoerromaniera
Galoerromantzea:	Frantsesa Frankoproventzera Okzitaniera + Gaskoia
Iberoerromantzea:	Gaztelania Galego-portugesa Katalana <sup>5</sup>

---

4. Erromantzeetako hizkuntza literarioen lekukotza zaharrenei buruz ikus Tagliavini 1981, zehazki benetan erakargarria den VII. atala.

5. Hizkuntza hauen karakterizazio labur batetarako eta ikerlariak proposatutako beste sailkapenen laburpen batetarako, Tagliavini 1981: 471-593. Tagliavinik, gainera, katalana galoerromatar multzoan sartzen du, irizpide linguistikoak jarraituz, iberoerromantzearekiko zubi-hizkuntza kontsideratuz; dalmatikoa, ordea, italoerromantzean kokatzen du, honen eta balkanoerromantzearen arteko zubitzat hartuz.

Noski, hizkuntza hauetako bakoitzak aldaera dialektalak ditu, baina ezin gara hauetan pausatu. Hala ere irakurlearentzat hain ezagunak ez bide direnei buruz hitz bi esango ditut. Dalmaziera (gaur egun Kroazian dagoen dalmaziar kostaldean hitz egiten zena) ez litzakete agian koadroan sartu behar, gaur egun galdua dagoelako, XIX. mendearen lehenengo laurdenera arte kementsu mantendu bazen ere. Azkenengo hiztuna (Antonio Udina, alias Burbur) 1898an hil zen, hizkuntza pasa den mendeko lehenengo hamarkadetan hitz egiten zuten gurasoek eta aiton-amonek irakatsi ziotelarik. M. G. Bartoli linguistak bere *Das Dalmatische* (Viena 1906) ikerkuntzan erabili zuen iturri nagusia izan zen gizon hau. Erretoerromaniera Suitza eta Italia arteko eskualde txiki batean hitz egiten diren aldaeren multzoak osatzen du. Frankoproventzera Frantziako erdi-ekialdean, eta baita Suitza eta Italiako mugetan ere kokaturiko aldaera dialektalen talde bat dugu, frantsesarekin eta okzitanierarekin amankomuneko ezaugarriak dituelarik.

## 7. Gaztelania

### 7.1. Garapen historikoa

Latinetik gaztelaniara doan bilakaeraren ezaugarri garrantzitsuenak azaldu baino lehen, komenigarria iruditzen zait bere testuinguru historikoan kokatzea. Hispaniako erromatarkuntza K.a. 218an hasi zen, erromatar gudalosteak Penintsulako iparrekialdean lehorreratu zirenean. Orduan koloniakuntza eta asentamendu prozesu erlatiboki geldo bat hasiko da, hurrengo bi mendeetan mendebalde eta iparmendebalderantz zuzendu zena eta K.a. 19an kantabriar kostaldearen konkistarekin burutzen dena (gaur egungo Galizia, Asturias, Kantabria eta Hego Euskal Herriaren zati bat). Bertako populazioek<sup>6</sup> Erromatik ailegatzen ziren kolono, administratzaile, legionario, merkatari eta abarrengandik ikasi zuten latina; latina botere politikoaren hizkuntza zen, zibilizazioaren ispilu, eta horregatik prestigio handia zeukan. Prozesua bizkorra izan zen zona batzuetan (ekialde eta hegoaldean), mantoagoa beste batzuetan (erdialde, mendebalde eta iparraldean) eta gaur egungo Euskal Herrian ez zen osatu.

Euskaratik oso gertuko zona batean sortu zen gaztelania, gaur egungo Burgos eta Kantabriako mugetan, Hispania erromatarreko ekonomi- eta kultur-erdiguneetatik oso urrun zegoen ipar mesetako inguruan; nahikoa berandu latinizatua zen eta, hortaz, hitz egindako latina prestigiozko arautik urrun zegoela pentsa daiteke. García Mouton-en iritziz (1994: 26), euskararekiko gertutasuna bere oinarritzko ezaugarrietan nabarmendu zen, latineko jatorritik Penintsulako beste hizkerak baino gehiago urrundu; egile honek, gainera, gogorarazten digu Amado Alonsok esan zuela Penintsulako erromantzeetatik iberikoena zela, hots, heredadutako ohitura linguistikoen ondorioz latinari leialtasun eskasena gordetzen ziona.

---

6. Iberia aurrerromatarraren sailkapen linguistikoa nahikoa nahasia da, dudarik gabe. Aurrerromatar herriei buruz (esate baterako baskoiak, iberoak, liguriarrak, tartesiarrak, feniziarak, kartagoarrak, grekoak, zeltak, etab.) eta erromatarren konkista aurreko Penintsularen egoera historiko-linguistikoaz ikus Lapesa 1968: 11-39.

V. mendetik VIII.aren hasierara arte Penintsularen gehiengoa monarkia bisigodoaren gobernupean egon zen. Galiatik frankoek bultzatuta (VI. mendearen hasieran) bisigodoak Penintsula osoaz jabetu ziren. Hispanian sartu baino lehenago partzialki erromanizatuak zeuden eta gutxi ziren; jatorrizko hizkuntza (ekialdeko germaniera) baztertu eta euren manupekoen hizkuntza zen latina bereganatu zuten; izan ere, bisigodoen garaian zehar kultur- eta administrazio-hizkuntza izaten jarraitu zuen. Garai honetan zehar Penintsulako populazioaren gehiengoak latina hitz egiten jarraitu zuen, zonen arteko ezberdintasunak sakontzen joan zirela pentsatzekoa bada ere.

Islamiar inbasioak (711) ondorio sakonak izan zituen: arabiarrek penintsularen hiru laurdenen gaineko kontrola ezarri zuten, baina iparrean eta iparmendebaldean nukleo kristauen biziraupena onartu zuten; nukleo hauek izango dira, hain zuzen ere, "birkonkista" delakoari hasiera emango diotenak. Hauetako gune bakoitzean latineko dialekto edo protoerromantze desberdin bat sortu zen, inguruko aldean desberdina. Kantabriak eta Burgosek osatutako nukleoaren hegoalderantzako hedakuntzak, birkonkistak aurrera egin ahala, hango dialektoa zen gaztelaniaren erabilera zabaldu zuen. Gaztelako erresumaren sorrerak (1035) gaztelau hizkeraren kontzientzia indibiduala biztu zuen, dudarik gabe. Aldi berean beste erromantze batzuk garatzen ari ziren, hala nola Nafarroakoa, aragoiera eta leoiera (edo asturleoiera), baina Gaztelak birkonkistan lortu zuen nagusigoak eta literaturaren garapenak azaltzen dute hizkuntzaren hedakuntza: Gaztelako progresuak gaztelaniarena ekarri zuen. Inguruko erresumen gaztelaratzea mantsoa eta progresiboa izan da, baina gaur egun oraindik ezin da osatua kontsideratu Asturias, Mendebaldeko Leon, Hueskako iparraldea bezalako zonetan (eta, noski, katalanaren eta galegoaren guneetan, euskararen batzuetan bezala). Hortaz, Penintsula barnean nahikoa makal dauden aragoiera eta asturleoiera (oso gaztelaniatuak baitaude) latinaren dialektoak kontsidera daitezke; andaluziera, Amerikako espainiera eta juduespainera edo sefardia (Espainiatik bidalitako juduen oinordek hitz egindakoa) gaztelaniaren dialektoak ditugu ordea<sup>7</sup>.

## 7.2. Aurretiko nozio pare bat

Gaztelania eta frantsesean gertatutako aldaketa garrantzitsuenetako batzuk ikusi baino lehen, komenigarria iruditzen zait latinezko deklinazioa gutxi gora-behera zertan datzan ezagutzeta: latinezko izen bakoitzak funtsean hamabi bukaera ezberdin izan zezakeen, eta hauei esker esaldian zuen rola (hots, kasua) eta numeroa adierazten zen. Terminologia tradizionala erabiliz eta asko sinplifikatuz, nominatiboa subjektu-funtzioaren berezko kasua dugu, bokatiboa deitzeko erabiltzen da, akusatiboa objektu zuzenerako erabiltzen da, genitiboak edukitza adierazten du, datiboa zeharkako objektuaren kasua da, eta ablatiboak, askotan preposizio batekin batera, esaldi barneko erlazio aniztasun handia adierazi ohi du (zergatia, zirkunstantzia, etab.).

---

7. Andaluziera XIII. mendetik XVI. mendearen hasiera arte kolonizatzaile eta birpopulatzailiek eramandako gaztelaniaren *in situ*ko bilakaera bat litzateke. Gaztelaniaren historiari buruz ikus Penny-k (1993: 11-27) egiten duen laburpena. Aragoiera, leoiera, andaluziera eta abarri buruz ikus Zamora Vicente-ren eskuliburu klasikoa (1985). Hezkuntza ertainetan oso erabilgarria izan daitekeen eskuliburu txiki bat García Mouton 1994 dugu.



Fenomeno ezberdinak ikusteko hemendik aurrera gaur egungo forma erromantzeen jatorrizko latinezko forma akusatibo singularrean emango dugu (-*m* bukaerarik gabe ordea, *rosa(m)*, *fili(um)*, *consule(m)*, latin arruntean desagertu egin baitzen hitz bukaeran kontsonante hori).

Beste aldetik, ezin dugu ahaztu latinezko grafiek ez dituztela beti ordezkaten gure hizkuntzetako soinu berberak; hots, kasu batzuetan latina ez da gaztelania edo euskara bezala irakurtzen: latinezko *ll* ez da sabaikaria, baizik eta geminatu albokaria; *ce*, *ci* [ke, ki], *que*, *qui* [kwe, kwi]; *ge*, *gi* euskarazko *ge*, *gi* bezala ahoskatzen dira eta ez gaztelaniazko *ge*, *gi* bezala. Honek esan nahi du latinezko grafiek ordezkaturako soinuak gaztelaniazko gaur egungo ahoskeraraino bilakatu direla (orohar), latinezko forma grafiko berbera mantendu dutelarik. Une egokia da grafia zeinu arbitrarioa dela gogoratzeko eta grafia batek soinu ezberdinak ordezkatzeko ditzakeela bi hizkuntzatan. Frantsesarekin konparatuz oraindik hobeto nabaritzen da denboraren poderioz hitzen formak aldatu egiten direla, grafia mantentzeko joera duen bitartean; azken finean frantsesaren idazkera ez da egokitu hizkuntza bilakaeraren erritmo azkarrera eta, hortaz, hitzaren idazkerak mende batzuetako atzerakuntza du eta ia beti antzinako ahoskeraren bat ordezkaten du (ikus Muller 1985: 79-89).

Latin klasikoaren bokal-sistema hamar fonemak osatzen zuten (bost letraz idatziak). Hiru ezaugarri desberdintzen dira: a) irekiera maila (itxia edo altua, erdiko edo irekia), b) artikulazio-gunea (aurrekoak edo sabaikariak, atzealdekoak edo belareak eta ez bata ez bestea ez direnak) eta c) kantitatea, hots, iraupena (batzuk luzeak ziren eta beste batzuk laburrak). Eskema honako hau izango litzateke,  $\bar{\quad}$  bokal luzearen eta  $\check{\quad}$  bokal laburraren gainean kokatuta):

	sabaikariak		belareak	
itxiak	$\bar{i}$	$\check{i}$	$\bar{u}$	$\check{u}$
erdikoak	$\bar{e}$	$\check{e}$	$\bar{o}$	$\check{o}$
irekiak		$\bar{a}$	$\check{a}$	

Bokal hauetaz gain hiru diptongo zeuden: ae, oe eta au.

Latinezko bokalismoak, pixkanaka, funtsezko aldaketa batzuk jasan zituen. Hitz egindako latinean bokal luzeak itxien moduan ahozkatzen hasi ziren eta laburrak irekiak bezala; kantitatearen balio bereizlea galtzen joan zen eta irekiera maila geroz eta garrantzitsuagoa bihurtu zen (K.o. I. mendearen inguruan):  $\check{e}$ ,  $\check{i}$ ,  $\check{o}$ ,  $\check{u}$  bokal irekiak;  $\bar{e}$ ,  $\bar{i}$ ,  $\bar{o}$ ,  $\bar{u}$  bokal itxiak. Gainera,  $\bar{a}$  eta  $\check{a}$  nahastu ziren, besterik gabe.

Beste aldetik, oso antzeko nolakotasuna zutenez,  $\check{i}$  irekia  $\check{e}$  itxiarekin eta  $\check{u}$  irekia  $\check{o}$  itxiarekin nahastu ziren Erromaniaren parterik handienean (galoerromantze eta iberoerromantzea barne). Honela bederatzi fonema bokalikoak zazpi bihurtu ziren kokapen tonikoan.

latin klasikoa:   ă   ā   ě   ē   ĩ   ī   ō   ō   ŭ   ū  
 latin arrunta:   a   e   e   i   i   o   o   u   u  
 prerromantzea:   a   e   e   i   o   o   u

Gainera diptongoen monoptongazioa gertatu zen:

ae > e,           oe > e,           au > o.

Latinetik gaztelaniara doan bilakaera fonologikoaz arituko gara orain, berdin geratzen denari barik, aldatzen denari soilik eskainiz arreta. Nire helburua fenomeno bakoitzaren adibide aski ematea da, adibide hauek proposatzerakoan norberak ondoriozta dezan zein aldaketa gertatu den (frantsesez zailagoa izan badaiteke ere). Horretarako gutxienez hiru adibide proposatzen ditut, orokorrean.

### 7.3. Aldaketa fonologikoak

#### 7.3.1. Bokalak

Bokal tonikoei dagokienez latin arrunteko zazpi bokaletako biren diptongazioa gertatzen da (e eta o laburrena), eta hortaz kokapen tonikoko latinezko bokal bezala bost geratu ziren, tinbre oso argikoak gainera:

ě (ae) > ie	bene > bien pede > pie petra > piedra caecu > ciego caelu > cielo
ō > ué	mola > muela nove > nueve rota > rueda forte > fuerte
oe > e	foedu > feo poena > pena
au > o	auru > oro paucu > poco tauru > toro
ĩ > e	fide > fe pilu > pelo pira > pera ligna > leña

ŭ > o

lutu > lodo  
dulce > dulce  
furca > horca  
lumbu > lomo

Alboko fonemen eraginez, gaztelaniazko diptongoak laburtu egin daitezke (*ie > i, ue > e*):

//-ren aurrean	castellu > castiello > castillo,
“	cultellu > cuchiello > cuchillo
<i>l, r</i> -ren ondoren	fronte > fuente > frente
“	colobra > culuebra > culebra
silaba bukaerako <i>s</i> -ren aurretik	vespa > aviespa > avispa

Barnealdeko bokal protoniko eta postonikoek desagertzeko joera zuten. Erresistentzia handiena aurkeztu zuena *a* dugu, bokalen arteko hautemangarriena delako:

fabuláre<sup>8</sup> > hablar  
limitáre > lindar  
hédere > hiedra  
débita > deuda

Bukaerako silaban hiru bokal geratu ziren, *e, a, o*:

latin klasikoa:	ă ā	ě ē ĭ ī	ō ō ŭ ū
latin arrunta:	a	e i	o u
gaztelania:	a	e	o

cantant > cantan  
cantas > cantas  
de unde > donde  
patres > padres  
iovis > jueves  
veni > vine  
cito > cedo  
canto > canto  
vinu > vino  
manus > manos

Bukaerako silaban *a* eta *o* ia guztiz egonkorrak dira eta *e* ez-egonkorragoa dugu, batzuetan: *c, d, l, n, r, s* eta *z*-ren atzetik orohar ez da mantendu:

8. Jakina da latinez ez dela tiletik erabiltzen; guk latinezko hitzetan tileta jarriko dugu komenigarria denean, azentua non zegoen erakusteko.

luna > luna  
 laudat > loa  
 canto > canto  
 pace > paz  
 mercede > merced  
 fidele > fiel  
 pane > pan  
 levare > llevar  
 bonitate > bondad  
 pariete > pared  
 mense > mes  
 baina nove > nueve  
 lacte > leche  
 monte > monte

### 7.3.2. Kontsonanteak

Hitz hasierako *s*-ren aurretik bokal protetikoa bat eranstean da, ondoren kontsonantea datorrenean:

statua > estatua  
 scamnu > escaño  
 scriptor > escritor

Hitz hasierako *f* epe luzeko galerarantz eraman zuen prozesu batean sartu zen [*f* > *h* > Ø], aspirazio horren oroitzapen grafikoa geratu bazen ere (gaur egun mutua den *h*- hain zuzen). Diptongo edo *r* baten aurretik dagoenean, ordea, mantendu egiten da:

ficu > higo                    forte > fuerte  
 filiu > hijo                    fonte > fuente  
 filu > hilo                    fronte > fuente > frente  
 farina > harina              folle > fuelle  
 facere > hacer  
 forma > horma  
 fornu > horno

*Qu*- [kw] /k/ belare ahoskabe batek eta [w] semikontsonante batek osatutako multzoa kontsidera dezakegu, jatorriz kontsonante ezpainkari-belare bat (/k<sup>w</sup>/) bazen ere. Kasu gehienetan ezpainkaritasuna edo semikontsonantea galdu zen, tradizioak *qu*- digrafoaren erabilera *e* eta *i*-ren aurrean mantendu badu ere; *a* tonikoaren aurretik, ordea, kontserbatu egiten da:

quaerere > querer  
 quindecim > quince  
 quingentos > quinientos  
 quattuor > cuatro  
 quale > cual

Bokalarteko kokapenean herskari ahoskabeak (*p, t, k*) ahostun bihurtzen dira (*b, d, g*); *e, i* aurreko /*k*/, /*θ*/ bihurtu da (albeolo-horzkari afrikari ahoskabea /*ʃ*/ edo ahostuna /*ʒ*/ izan zen bitarteko etapa baten ondoren).

caput > cabo  
lupu > lobo  
pratu > prado  
focu > fuego  
amicu > amigo  
vicinu > vecino  
racemu > racimo  
circa > cerca

Bokalarteko kokapenean herskari ahostunak (*b, d, g*) galdu egin ohi dira:

pede > pie  
legale > leal  
legere > leer  
bibere > beber  
habebam > había  
nudu > nudo

Kontsonantea + *r* talde bat dagoenean, kontsonantea bokalarteakoa bailitzan bilakatzen da:

capra > cabra  
petra > piedra  
lacrima > lágrima  
socru > suegro

Kontsonante-multzoak ahuldu eta bakundu egin ohi dira:

pt > p	septem > siete
	aptare > atar
ps > ss > s	ipse > ese
ns > s	mensa > mesa
mb > m	palomba > paloma
	lumbu > lomo

Gaztelaniak, frantsesak bezala, prozesu ezberdinak jarraituz, sabaikari-artikulazioa eratzen du, latinez ez zeuden kontsonante berri batzuk sortuaz, gaztelaniaz *ch, ñ, j, ll, y* letren bidez irudikatzen direnak hain zuzen, bai eta *z, ce, ci* [θ], antzinako sabaikaritze baten gaur egungo emaitza.

Kasu askotan kontsonante hauek yod-aren eraginaren ondorio dira. Yod semikontsonantea, [j] bezala irudikatzen duguna, era desberdinetan sortu zen: hiatoko *e* eta *i*-ren ondorio da (*puteu*), kontsonante belare taldekatu baten

bokalizazioarena (*factu* > \**faitu* > *hecho*, *apic(u)la* > \**abeg'la* > \**abeyla* > \**abella* > *abeja*), edo hurrengo silabako bokal baten erakarpenarena edo metatesiarena (*caldaria* > *caldaire* > *caldera*). Sarritan yod honek aurretik daukan kontsonantea aldarazten du, azken honen artikulaziogunea yod-arenerat bultzatuz eta artikulazio modua ere aldatuz: herskaritik frikarira; sabaikaritze-prozesua deitzen den honek azkeneko emaitza hauek ematen ditu:

t + [j] > z  
 puteu > pozo  
 fortia > fuerza  
 platea > plaza

k + [j] > z  
 ericiu > erizo  
 pellicea > pelliza  
 saetaciu > cedazo

l + [j] > j  
 aliu > ajo  
 folia > hoja  
 meliore > mejor

n + [j] > ñ  
 aranea > araña  
 Hispania > España  
 seniore > señor

d + [j] >  
 g + [j] > y,  
 Ø (g, d + [j], aurrean e / i duenean),  
 z (d + [j] kontsonantearen ondoren)

podiu > poyo  
 radiare > rayar  
 fagea > haya  
 corrigia > correa  
 video > veo  
 virdia > berza

Metatesia jasaten dute *p*, *s*, *r* + [j] multzoek (bilakaera *quepa* adibidean ikusten da):

capiam > \*caipa > quepa  
 basiu > beso  
 mansione > mesón (ns > s)  
 auguriu > agüero  
 ferrariu > herrero

ct > it > ch  
 factu > hecho  
 lacte > leche  
 lectu > lecho

	nocte > noche octo > ocho
(u)lt > (u)ch	multu > mucho cultellu > cuchillo
x [ks] > j	dixi > dije mataxa > madeja taxu > tejo
gn > ñ	ligna > leña pugnu > puño stagnu > estaño

Tarteko bokal baten galerak eragindako kontsonante-talde erromantzeetan:

t'l >	
g'l > j edo	
c'l > ch edo x, kontsonantearen ondoren	
	vet(u)lu > viejo oc(u)lu > ojo auric(u)la > oreja coag(u)lu > cuajo teg(u)la > teja masc(u)lu > macho trunc(u)lu > troncho
ng'l > ñ	ung(u)la > uña
b'l > ll	trib(u)lu > trillo baina fab(u)la > habla

Adibide hauetan yod-ak kontsonanteetan izan duen eragina ikusi da. Agerian geratu da orobat adibide batzuetan yod-aren aurreko bokalaren silaba itxi egin dela: yod-ak aurreko bokala bere itxieraz kutsatu ohi du, gradu bat itxiz, *facto* > *hecho*, *cereu* > *cirio*, *co(g)itat* > *cuida* adibideetan ikus daitekeenez<sup>9</sup>.

Kontsonante bikoitzen sabaikaritzea:

-ll- > ll	caballu > caballo gallu > gallo valle > valle
-----------	-----------------------------------------------------

9. Yod-ak bokaletan gain duen eragina aztertzeak leku gehiegi eskatuko luke, hortaz, gehiago jakin nahi duena Menéndez Pidal 1968: 44-50 eta Penny 1993: 42-46-ra igortzen dut.

-nn- > ñ                      annu > año  
                                     canna > caña  
                                     grunnire > gruñir

-mn- > nn > ñ                damnu > daño  
                                     scamnu > escaño

Hasierako *cl-*, *pl-*, *fl-* multzoen sabaikaritzea:

                                     planu > llano  
                                     plenu > lleno  
                                     flamma > llama  
                                     flaccidu > llacio > lacio  
                                     clave > llave  
                                     clamare > llamar  
baina                      flore > flor  
                                     placere > placer

Sekuentzia problematiko batzuk konpontzeko epentesia gertatzen da; hala, *m'n*, *m'r* eta *m'l* kontsonante-multzo erromantzeek batzuetan *b* tartekatzen dute:

                                     fem(i)na > hembra  
                                     hom(i)ne > hombre  
                                     hum(e)ru > hombro  
                                     trem(u)lare > temblar > temblar

Batzuetan *n`r* artean *d* epentetiko bat ere agertzen da, baina beste batzuetan metatesia gertatzen da:

                                     ingen(e)rare > engendrar  
                                     gen(e)ru > yerno  
                                     ten(e)ru > tierno

Hizkuntza erromantzeetan eratu diren talde “zail” batzuetan beste metatesi batzuk izan dira:

                                     t'n > nd                      cat(e)natu > candado  
                                     t'l > ld                      capit(u)lu > cabildo  
                                     m'l > lm                      cum(u)lu > colmo

Bukaerako kontsonanteei dagokienez bakarrik *l*, *s*, *n* eta batzuetan *m* (*n* bilakatuta, monosilabo batzuetan) geratu dira. *R* metatesia dela medio barne kokapenean jarri zen eta gainontzekoak ezabatu egin dira:

                                     male > mal  
                                     minus > menos



in > en  
quattuor > cuatro  
semper > siempre  
potest > puede  
salivit > salió  
ad > a  
aliquod > algo  
iam > ya  
cantabam > cantaba  
tam > tan  
cum > con  
ad illic > allí  
nec > ni<sup>10</sup>

## 8. Frantsesa

### 8.1. Garapen historikoa

Galoerromantzea (hots, erromatarrek Galia deitzen zuten eta gaur egun Frantzia bezala ezagutzen dugun lurraldean hitz egiten den erromantzea) tradizionalki bi hizkuntza-multzotan banatu izan da, *bai* esateko bi modu desberdinak oinarritzat harturik: *langue d'oïl* (*oïl* < lat. *hoc ille*), erdi aldeko eta iparraldeko dialekto ezberdinekin, eta *langue d'oc* (*oc* < lat. *hoc*), hegoaldean. Gogora dezagun Ertaroan oïl-eko zonan hitz egindako dialektoetatik Ille de France-ko probintziakoa edo frantzikoa izan zela azkenik, arrazoi politikoak direla medio, hizkuntza nazional bezala inposatu zena; konkretuki Parisen hitz egiten zen frantzikoa, zona honen prestigio eta botere politikoari esker hain zuzen ere. Gainontzeko dialektoen gainbehera Ertaroaren amaiera aldera gauzatu zen eta XV. mendetik ez da iparraldean frantsesa baino idazten. Egia da dialekto batzuk geratzen direla, baina hauen gaur egungo egoera Ertarokoarenaren oso ezberdina da, garai haietan indar handia eta baita literatura nabarmengarriren bat izatera ere heldu baitziren; gaur egun, ordea, dialektoek *patois* maila baino ez dute, hots, herri xeheak soilik hitz egiten ditu eta ez dira inola ere literarioki lantzen.

Oc-eko hizkuntza gaur egun okzitaniera bezala ezagutzen dugun dialekto multzoa dugu; askotan proventzera izena ematen zaio, baina guk Provenzako zonako okzitanieraren dialektotzat hartuko dugu, okzitanieraren barnean agertzen diren beste dialekto batzuekin batera; halere Ertaroko gorteetan euren lanak osatzeko trobadoreek erabili zuten hizkuntza poetiko moduan eraikitako koine konkretuari *proventzera* deitzen zaiola gogoratu behar dugu. Frantsesa okzitaniera eta franko-proventzeraren dialektoen gainean ezarri da, bi zona hauetan kultur-hizkuntza eta baita hizkuntza arrunt bezala inposatuz, oc hizkuntzaren lurraldea nabarmenki murriztu delarik Frantziako nazio-hizkuntzaren bultzadaren ondorioz. Gogoan izan frantsesa Frantziako hizkuntza ofizial bakarra dela, honek dakartzan ondorio soziolinguistikoekin; honi hiztunen hizkuntza-kontzientzia eskasa gehi

---

10. Noski, fenomeno garrantzitsu batzuk ezin izan ditut ukitu eta aipatu ditudanen arteko batzuek azalpen zabalagoa beharko lukete, betetzen ez diren kasu berezien garapen osatuago batekin batera. Ikus adibidez Penny 1993: 28-109.

diezaiokegu, gehienek hitz egiten dutena prestigio gabeko *patois*-a besterik ez dela sinesten dutelarik. Halere, eta Letonak (1996: 14) azaltzen duenez, «datu zehatzik ez badago ere, lau bat milioi pertsona okzitanoa ulertzeko gai dira eta horietatik bi milioi inguru mintzatzeko gai ere bai».

Hegoaldeko eta iparraldeko erromantzeen erakuntzak (eta euren artean eta besteen aldean aurkezten dituzten desberdintasunak) azaltzeko denborarik ez dugun faktore historiko multzo batekin du zerikusia, baina orohar beste zonetako latinetik erromantzeetarako bilakabidean eragina izan duten berberak lirateke: euren artean kontuan hartu behar ditugu aurrerromatar herri ezberdinak<sup>11</sup> edo geroago momentu ezberdinetan lur haietan ezarri zirenak. Beste alde batetik, badirudi erromatarkuntza maila ere desberdina izan zela zona batzuetatik besteetara: orohar, hegoaldeko erromatarkuntza iparraldekoa baino goizagokoa eta sakonagoa izan zen.

Galian gogoratu behar da, gainera, germaniar inbasioen eragina oso sakona izan zela: iparraldean, V. mendearen azkenengo laurdenean gutxienez, frankoak ezarri ziren eta, hein txikiago batean, baita burgundiarrek ere, eta hegomendebaldean bisigodoek Tolosako (Toulouse) erresuma sortu zuten, geroago erresuma hau Iberiar Penintsulara zabalduz. Bisigodoak nahikoa erromanizatutako herria ziren eta ez zuten aztarna handirik utzi bertako hizkuntzan. Godoak 507an frankoek Galiatik baztertu eta gero, Penintsulara erretiratu ziren. Loira ibairaino zabaldu zen frankoen kolonizazioak hegoaldea eta iparraldea zatitzen duen hesi linguistikoa eratu zuen. Iparraldean ez ziren bakarrik gerlari frankoak ezarri, baita nekazari frankoak ere. Frankoen inbasioa izan zen, hain zuzen, eskualde hartan erabiltzen zen hizkuntza erromanikoari frantsesa bezala ezagutzen dugun hizkuntza-forma eman ziona.

Frantsesa hizkuntza erromantzerik berritzaileena da, hots, latinetik gehien urrundu dena. Gaurko frantses hiztunari zailagoa egiten zaio bere hizkuntzako testu zaharrak ulertzea (adibidez, XII. mendeko egilea dugun Chrétien de Troyesek idatzirikoa), beste hizkuntza baten hiztunari bere testu zaharrak ulertzea baino. Izan ere, nekez identifikatzen ditugu “antzinako frantsesa” delakoa (*ancien français*, XII.-XIII. mendeak) eta frantses modernoak bilakaera-garai ezberdinetan dagoen hizkuntza berbera bezala. Hizkuntza modernoaren finkapena gorabeheretz eta polimorfismoz beteriko epealdi luze baten ondoren gauzatu zen; garai hori “erdiko frantsesa” bezala ezagutzen da (*moyen français*, XIV.-XVI. mendeak).

Ondoren aldaketa fonologiko garrantzitsuenak azalduko ditugu. Gaztelaniarekin bezala, ez ditugu latinezko formen eta gaurko emaitzen arteko bitarteko pausuak aurkeztuko; orohar, gainera, gaztelaniarenak baino luzeagoak dira, gehienetan estadio hauek grafian nola edo hala islaturik geratu direlarik (bitarteko prozesuetarako ikus adibidez Bonnard 1990). Ez dut frantseseko hitz bakoitzaren parean transkripzio fonetikorik erantsiko, testua gehiegi zamatuko bailuke, eta soilik bilakaera jasaten duen segmentuari dagokion transkripzioa eskainiko dut, beti ere grafiak euskarazko baliokiderik ez badu.

---

11. Liguriar, iberiar, greko, galiar eta abarri buruz ikus von Wartburg 1966: 14-32. Galiarrak, herrialdeari izena eman ziotenak hain zuzen, Galia K.a. 500 urtearen inguruan inbaditu zuten zeltak baino ez dira; hauek Alemania edo Iparraldeko Itsasotik ailegatu ziren.

## 8.2. Aldaketa fonologikoak

### 8.2.1. Bokalak

Frantses modernoak bokal-sistema aberatsa du, hamasei formarekin, oposizio batzuk desagertzen ari badira ere (hala eta guztiz ere latinezko bost grafiatan oinarrituz jarraitzen da idazten). Latin arruntarekin alderatuz frantziar bokalismoa gainontzeko hizkuntza erromanikoena baino berritzaileagoa da (bokal sudurkari eta ezpainkariak ditu).

Bokal-aberastasun hau ezinbestekoa zaio frantsesari, egia esan, bukaerako bokal eta kontsonante ia guztiak galtzeagatik izan ditzakeen arazoak direla eta, hitzen gorputz fonetikoa beste hizkuntzetan ikusten ez den proportzioan murriztu delarik. Artikulazioaren erlaxazio orokor baten ondorioa den hitzen mozketa hau frantsesaren ezaugarriarik esanguratsuenetakoa dugu. Hain zuzen ere frantsesezko ondare-hitzak, normalean, beste erromantzeetakoak baino motzagoak izan ohi dira (lat. *catena* > fr. *chaîne* [-en], it. *catena*, okz., kat. eta gazt. *cadena*, port. *cadeia*). Bokalismoaren aniztasunak funtzio oso zehatza du sistema honetan: hitzak desberdintzea. *Pis* (*pi* ahoskatuta, konparatu gaztelaniazko *peor* eta edozein hizkuntza erromanikorekin), *pu* (*pü*, gazt. *podido*), *pou* (*pu*, gazt. *piojo*), *peu* (*pø*, gazt. *poco*), *peau* (*po*, gazt. *piel*), *pain* (*pē*, gazt. *pan*), *paix* (*pe*, gazt. *paz*), *pont* (*pō*, gazt. *puente*), *pas* (*pa*, gazt. *pasos*), *pan* (*pã*, gazt. *pañõ*) bokalagatik bakarrik desberdintzen dira.

Hala eta guztiz ere ez dago hainbesteko homofoniarik aurkezten digun europar hizkuntzarik. Ikus *ver* 'zizarea', *vert* 'berdea', *vers* 'neurtitza', *vers* '-ra', *vair* 'lepahori', *verre* 'beira', hauek guztiek ebakera berdina dute.

Bokal tonikoek eta hasierako atonoek mantentzeko joera dute eta hasierakoak ez diren atonoak (pretonikoak, postonikoak eta bukaerakoak), ordea, desagertu egin ohi dira. Gainera tonikoarekin hiatan dauden hasierako silabetako atonoak maiz desagertzen dira:

ma(t)úru > mûr  
\*ae(t)áticu > âge  
vi(d)ére > voir  
co(t)óneu > coing  
ru(t)ábulu > râble

Pretonikoak ere maiz galtzen dira:

armatúra > armure  
crudaménte > crûment  
liberáre > livrer  
sanitáte > santé  
dormitório > dortoir  
ancoráre > ancrer  
simuláre > sembler  
pisturíre > pétrir  
\*parauláre > parler

Postonikoak beti desagertzen dira:

\*cólapu > coup  
cámara > chambre  
víride > vert  
lépore > lièvre  
tábula > table

Bukaerako bokalak: bukaerako a, beti e [ə] bihurtzen da. Gauza bera gertatzen da beste bokalekin hitz proparoxitonoetan; paroxitonoetan bakarrik 1) kontsonante likidoak, 2) ezpainkari + [j] edo 3) konts. + [dj] aurrean daukatenean. Beste paroxitonoetan desagertu egiten da bukaerako bokala:

via > voie  
capra > chèvre  
causa > chose

ásinu > âne  
lépore > lièvre

duplu > double  
patre > père  
nostru > notre  
rubeu > rouge  
simiu > singe  
hordeu > orge

valle > val  
muru > mur  
portu > port  
viginti > vingt

Silaba askeko bokal tonikoek nolakotasuna aldatzeko joera dute:

a > e

mare > mer  
pratu > pré  
patre > père

ě, ae > ie

heri > hier  
pede > pied  
petra > pierre

ē, oe >  
ĩ > oi [wa]

me > moi  
tela > toile  
habere > avoir  
via > voie  
fide > foi

ö > eu, oeu [ø]

bove > boeuf  
cor > coeur  
novu > neuf  
proba > preuve

ō > eu, oeu [ø]  
ŭ

flore > fleur  
nepote > neveu  
mores > moeurs  
gula > gueule

ū > u [y]

murū > mur  
ruta > rue  
mula < mule

au [aw] > o, au [o]

auru > or  
paup(e)re > pauvre  
thesauru > trésor

Ez da aldatzen *a* bokal atonoa lehenengo silaba askean, *c* sabaikarituren bat aurrean duenean izan ezik [ʃ], kasu honetan e [ə] izatera pasatzen delarik:

camínu > chemin  
cabállu > cheval  
camísia > chemise

Kontsonante sudurkariaren aurreko bokalaren sudurkaritzea frantsesaren fenomeno berezia da. Giltzatutako silabetan sudurkaritzea osoa izaten da; kontsonanteak eta sudurkariak bat egiten dute: [ã], [ẽ], [jẽ], [õ], [õ̃].

ann(u) > an  
pann(u) > pan  
vin(u) > vin  
fam(e) > faim  
rem > rien  
non > non  
hom(o) > on  
un(u) > un

### 8.2.2. Kontsonanteak

Hitz hasierako *s*-ren aurrean, ondoren kontsonantea datorrenean, bokal protetiko bat sartu ohi da eta *s* desagertzen da:

scala > échelle  
statu > été  
spina > épine

Sabaikaritze fenomeno frantsesaren ezaugarri berezietako bat da. Ikus dezagun hasierako, bokalarreko eta taldekatutako kontsonante belareen sabaikaritzea:

Hasierako kontsonante belareak:

c (+ e, i) > c [s]

centu > cent  
cervu > cerf  
cera > cire

g (+ e, i) > g [ʒ]

gelu > gel  
gente > gent  
generu > gendre  
carru > char  
caru > cher  
cattu > chat

c (+ a) > ch [ʃ]

g (+ a) > j, g [ʒ]

gamba > jambe  
gaudia > joie  
galbinu > jaune  
\*galina > geline

Bokal arteko kontsonante belareak:

(a, e, i +) c, g (+ a) > y, i [j]

pacare > payer  
necare > noyer  
amica > amie  
paganu > païen  
regale > royal  
castigat > châtie  
plaga > plaie

Talde kontsonantikoen sabaikaritzea:

c (+ kots.): ct, cr, c'r, x >

g (+ kots.): gr, g't, g'd, c'l, g'l > [j] + kots.

factu > fait  
lacte > lait  
nocte > nuit  
sacramentu > sairement > serment  
lacrima > larme > larme  
laxare > laisser  
coxa > cuisse  
flagrare > flairer  
leg(i)t > lit

rig(i)da > raide  
frig(i)du > froid  
masc(u)la > maille  
auric(u)la > oreille  
vig(i)lare > veiller  
coag(u)lare > cailler

Bokal arteko kontsonanteek ahuldu edo galtzeko joera dute:

t, d > Ø  
minutu > menue  
dotare > douer  
vita > vie  
coda > queue  
nuda > nue  
laudare > louer

p, b > v<sup>12</sup>  
ripa > rive  
sapone > savon  
tropare > trouver  
caballu > cheval  
habere > avoir  
hibernu > hiver

s > s [z]  
rosa > rose  
causa > chose  
pausare > poser

Bokalarateko kontsonante-taldeak:

tr, dr > r, rr<sup>13</sup>  
patre > père  
petra > pierre  
fratre > frère  
nutrire > nourrir  
\*ri(d)ere > rire  
quadratu > carré

pr, br, vr > vr  
capra > chèvre  
aprile > avril  
recup(e)rare > recouvrer  
libru > livre  
febre > fièvre  
viv(e)re > vivre

---

12. Ez ahaztu v ezpain-horzkaria dela, ez ezpainbikaria gaztelaniaz bezala.

13. Ezin dugu ahaztu ahoskera, horzkaria izanik, XVII-XVIII. mendeetatik belarea edo mingainkaria bihurtzen dela.

pl, bl > bl	duplu > double tab(u)la > table culpab(i)le > coupable
gn > gn [ŋ]	agnellu > agneau dignare > daigner *insignare > enseigner
m'r > mbr	cam(e)ra > chambre num(e)ru > nombre *remem(o)rare > remembering
m'l > mbl	hum(i)le > humble cum(u)lu > comble sim(u)lare >sembler
n'r > ndr	cin(e)re > cendre pon(e)re > pondre *ven(e)risdie > vendredi

Latinean edo erromantzean bukaerako kokapena zuten kontsonanteek ahoskabetzeko edo desagertzeko joera dute, *r*, *rr*, *l*, *ll* likidoek ezik, hauek mantentzeko joera baitute. Ortografiak (etimologikoak) maiz antzinako kontsonantea berekarri du.

(bok. +) p, b > f	cap(ut) > chef
(konts. +) p, b > Ø	camp(u) > champ plumb(u) > plomb drapp(u) > drap
v > f	bov(e) > boeuf cerv(u) > cerf nov(u) > neuf
(bok. +) t, d > Ø	amat > aime nepot(e) < neveu fid(e) > foi nud(u) > nu
(konts. +) t, d > Ø	part(e) > part grand(e) > grand tard(e) > tard cal(i)d(u) > chaud
s > Ø	claus(u) > clos trans > très nos > nous



r > car(u) > cher  
rr > r carr(u) > char  
turr(e) > tour  
haber(e) > avoir

l > fil(u) > fil  
ll > l sal(e) > sel  
mill(e) > mil  
coll(u) > col

c, g:

(bok. +) c (latinez bukaerakoan) > Ø

illac > là  
sic > si  
ecce-hac > ça

(kots +) c, g (erromantzez bukaerakoan) > Ø

cler(i)c(u) > clerc  
long(u) > long  
porc(u) > porc

(a, e, i +) c (erromantzez bukaerakoan) > [j] > i (eta aurreko bokalarekin konbinatzen da)

amic(u) > ami  
verac(e) > vrai  
spic(u) > épi<sup>14</sup>

## 9. Morfosintaxia

Latinetik gaztelaniara eta frantsesera eraman duen ibilbideari buruzko ohar hauek idazterakoan ezin dugu morfosintaxia alde batera utzi eta, berriz ere, fenomeno esanguratsu baina ez oso konplexu batzuk aukeratzen saiatuko naiz.

Latina eta gaztelaniaren edo frantsesaren arteko senidetasun-erlazioak ez du esan nahi egituraz berdinak diren hizkuntzak direnik: latina eta beste antzeko hizkuntza batzuk sintetikoak kontsideratu ohi dira, lotutako morfema asko izan ohi dituztelako (kasu-morfemak, aditz-morfemak, etab.); ingelesa bezalakoak, ordea, sintetiko bezala ezagutzen dira, hauetan morfema libreak (aldaeinezko hitzak) nagusi direlako hain zuzen. Bestalde, frantsesa eta gaztelania ingelesa baino sintetikoagoak dira, baina ama-hizkuntza duten latina baino gutxiago.

---

14. Frantsesaren fonetika historikorako, batez ere Cantera eta Yllera 1974 eta Bourciez 1974 ikusi ditugu. Von Wartburg 1966 liburuak testuinguruan kokatzen du fenomeno batzuen bilakaera.

Gainbegiradan badirudi hizkuntza hauek latinak baino hitz gehiago erabiltzen dutela gauza berbera adierazteko: kontuan hartu latinean ez dagoela artikulurik, preposizioen erabilera mugatuagoa dela (zeharkako objektuak ez du eramaten, adibidez), konparaziozko formak sintetikoak izan ohi direla eta ez dagoela aditz-forma analitikorik boz aktiboan.

Hitzen ordena latin klasikoan nahikoa librea da; *Pedrok Pablo maite du* esaldi xumea esateko *Petrus amat Paulum*, *Petrus Paulum amat* edo *Paulum Petrus amat* esan zitekeen; subjektua eta objektu zuzena nahastea ezinezkoa zen, kasuhondarkiak argi nabarmentzen zirelarik. Halere ohiko ordena subjektua-osagarriak-osagarri zuzena-aditza zen (*Antiochus epistulis bellum gerit*). Frantsesez eta gaztelaniaz ordena subjektua-aditza-osagarriak izan ohi da (*Antiocho hace la guerra con cartas*); gaztelaniaz, hala eta guztiz ere, kokapen askatasun handiagoa baimentzen du. Oso kokapen hertsia bereizten du, ordea, frantsesa.

Latinez preposizioak euren erregimenetik bananduta joan zitezkeen (*contra quis ferat arma Deos?*) eta izena bere determinatzaileetatik banandurik egon zitezkeen (*Extemplo Lybiae magnas it Fama per urbes*). Hizkuntza erromantzeetan, ordea, preposizioak ezin ziren euren erregimenetik bananduta agertu, adibidez. Frantsesez behin baino gehiagotan kokapenak baldintzatzen du izen baten funtzioa (*Pierre aime Paul*).

Arrazoi gehienbat fonetikoek latinezko deklinabideen pobretzea eta, azkenean, galera ekarri zuten (hizkuntza modernoetan utzi dituzten arrastoez ez dugu hitz egingo). Nahasketa gero eta handiagoa egin zen kasu-atzizkiak galtzen joan ziren heinean. Deklinabidea aztertzen badugu latinezko izen bakoitzak funtsean hamabi bukaera ezberdin dituela ikusten dugu, baina gutxienez lau bat datoz; lehenengoan, adibidez, bakarrik zazpi bukaera desberdin aurkituko ditugu, ez-uler-tuetarako aukera emanez, batez ere kontuan hartzen badugu kasu batzuek, batez ere ablatiboak eta akusatiboak, esaldian funtzio ezberdinak bete zitzaizkela. Hitz egiten zen latinak mekanismo osagarriak zituen, batez ere preposizioak, anbiguotasun hori argitzeko; ablatiboa maiz preposizioez lagundua ematen zen, latin klasikoan ere; erabilera hau latin arruntean garatu eta indartu egiten da (*in nocte*, *in die*, *in illo tempore*). Deklinabideko bukaerako kontsonanteen galerak ekartzen du preposizioez lagundutako egiturek latinezko kasuak ordezkatzeko; egitura hauek euren lana hobeto betetzen zuten, kasu-morfemak baino ugariagoak baitziren:

*genitiboa* > *de* + *ablatiboa* > iz. *de* iz. hizkuntza erromanikoetan.

*filius regis* / *regis filius* > *filius de rege* > *hijo de(l) rey*, *fijs de/du roy*.

*datiboa* > *ad* + *akusatiboa* > *a* + iz. hizkuntza erromanikoetan.

*pauperi panem do* > *do panem ad pauperem* > *doy pan al pobre*, *je donne du pain au pauvre*.

Aditz-denboretan, analisirako joera nabarmentzen da: latin klasikoak aditz-denbora batzuk adierazteko forma pasibo sintetikoak zituen (indikativoko orainaldia, imperfektua eta geroaldia eta subjuntiboa): *amor* 'soy amado' 'maitatua naiz'. Gainontzeko denborak analitikoki eraikitzen ziren jokatzen den aditzaren partizipioa (*amatus*) eta esse aditzaren forma batzuk elkartzuz (*amatus est* 'fue / ha

sido amado' 'maitatua izan da / zen'). Hitz egiten zen latinean egitura analitiko hauek denbora guztietara zabaldu ziren eta konkretuki *amatus est*-i orainaldiko balioa eman zitzaion eta *es amado / il est aimé* bihurtu zen.

Latineko balio berdina gordez aldaketa handirik gabe iraun duen denbora bat orainaldia izan da:

	cantare		
cant-o	cant-o	chant-e	
cant-as	cant-as	chant-es	
cant-at	cant-a	chant-e	
cant-amus	cant-amos	chant-ons	
cant-atis	cant-áis	chant-ez	
cant-ant	cant-an	chant-ent	

Azpirarratzekoa da frantsesez singularreko eta pluraleko hirugarren pertsonen ebakera berdina bihurtu dela, ortografia kontserbatzailea bada ere. Honek esan nahi du subjektua halabeharrez esplizitua egin behar dela hizkuntza honetan, hitz egiten duen pertsona nor den jakiteko, gaztelania eta latinean gertatzen ez den bezala.

Latinez boz aktiboaren aditz-denborak sintetikoak ziren; hizkuntza erromantzeetan aditz-forma analitiko berriak garatu ziren, infinitiboak eta laguntzaile batek osaturikoak. Laguntzailea *habere* ('tener') aditzean oinarritzen da, batzuetan beste aditz batekin batera laguntzaile modernoaren antzeko funtzioa egiten zuelarik (*habeo cultellum comparatum* gaztelaniaz 'el cuchillo lo tengo comprado' izan liteke). *Habere*-ren 'edukitze' osagarri semantikoa ahuldu eta azkenen desageru egiten da. Perfektu perifrastikoa *perfektuaren partizipioa + habere aditz laguntzaileaz* osatzen da. Frantsesez aditz iragangaitzen laguntzailea *esse* latinezko aditzetik dator ('izan'):

habeo cantatum	he cantado	j'ai chanté
habeo	he	ai
habes	has	as
habet	ha	a
habemus	hemos	avons
habetis	habéis	avez
habent	han	ont

j'ai chanté / je suis venu  
yo he cantado / yo he venido

Latinezko geroaldiak ez du jarraipenik erromanikoan (*amabo* 'maiteko dut', *regam* 'gidatuko dut', etab.). Perifrasi bat erabiliz eratzen da forma berri bat hizkuntza erromanikoetan, baina azkenean hizkuntza erromanikoen geroaldirako forma hau sintetikoa bihurtzen da:

cantare habeo (habes, habet, habemus, habetis, habent)  
cantare habeo > \*cantar hé > cantaré  
cantar -é, -ás, -á, -emos, -éis, -án  
chanter -ai, -as, -a, -ons, -ez, -ont.

Latinak adjektiboa oinarri bezala hartuz adberbioak sortzen zituen, bide ezberdinetatik: ohikoena *bonus* motako adjetiboei -e bukaera gehitzea zen (*longe, pure*) edo -*ter grandis* motako adjektiboei (*fortiter, sapienter*). Atzizki hauek ez dira jadanik eraginkorrek adberbio bezala: -*ter* guztiz desagertu da eta ia ez da geratzen -e-z bukatutako latinezko adberbioen arrastorik hizkuntza erromantzeetan (*tarde, tard*).

Latin arruntean, *mens, -tis* izena oinarri bezala hartuz ('pentsatzeko era, sentitzeko era, ulermena, adimena') modu-adberbioentzat atzizki bat sortu zen. Latinezko esamolde hauek hasiera batean zirkunstantzialak ziren eta eurretan ablatiboan jarritako *mens* izen femeninoa beronekin ablatiboan eta femeninoan komunztatzen zuen adjektibo batez lagundurik agertzen baitzen: *devota mente* ('gogo errukiorrez'). Femeninoan jartzen ziren adjektibo batzuekin batera *mente* ablatiboak 'adimen' jatorrizko zentzua galdu eta modu-balorea hartzen zuen: *prudente mente* ('modu zuhurrean'), *severa mente* ('modu zorrotzean'), atzizki eratortzailea bihurtu arte. Azkenean adjektiboarekin bat egiten du. Semantikoki gaur egungo adberbio-formazio erromanikoak ez du loturarik latinezko *mens* esanahiarekin, antzinako bi hitzen arrastoak gordetzen baditu ere (gaztelaniaz bi intentsitate-azentu izaten ditu eta batera bat baino gehiago agertzen denean, -*mente* bakarrik azkenengoan agertzen da: *lenta y cuidadosamente*; antzinako frantsesean berdin gertatzen zen, ez gaur egun ordea: *cruellement et longement*).

Latin klasikoan adjektibo gehienei ezartzen zitzaien sistema konparatiboa sintetikoa zen:

fortis 'ausarta'  
fortior 'ausartagoa'  
fortissimus 'ausartena' / 'oso ausarta'

Aldi berean, adjektibo kopuru txiki batek modu analitikoa erabil zezakeen, azkenean ia adjektibo guztietara zabaldu zen sistema hau:

fortis 'ausarta'  
magis / plus fortis 'ausartagoa'  
maxime fortis 'ausartena'  
multum / valde fortis 'oso ausarta'

Latin klasikoaren azken garaian konparatzailearen eta superlatibo erlatiboaren arteko desberdintasuna alde batera utzi zela dirudi, eta hau dela-eta forma konparatiboa (*magis / plus fortis*) bi zentzuetan erabili zen. *Valde* desagertu egin zen; gaztelaniaz *magis* hobetsi zen (*magis > más*) eta frantsesez *plus*. Gainera *multu > muy* aurkitzen dugu gaztelaniaz, frantsesak beste forma bat hartzen duen bitartean: *tra(n)s > très*:

fuerte  
(el) más fuerte  
muy fuerte

fort  
(le) plus fort  
très fort

Konparatzailek erabilienek soilik mantendu zuten forma sintetikoa: hau da gaztelaraz *melior*, *peior*, *maior*, *minor*-ekin gertatzen dena (*mejor*, *peor*, *mayor*, *menor*). *Inferior*, *superior*, *interior*, *exterior*, *ulterior*... bezalako konparatzaileak ertaroan edo geroago sartutako mailegu kultuak dira (superlatiboaren *óptimo*, *ínfimo*, *máximo*, *mínimo* superlatibo-formak bezala). Superlatiboaren *-ísimo* atzizkiak ere jatorri kultua du (izan ere *fortísimo*, *antiquísimo* hitzak eurak kultismoak dira). Frantsesez ere *mieux / meilleur*, *pis / pire* bezalako forma analitikoak geratu dira.

Artikulua latinezko erakusleen ahulketaren ondorio litzateke. Hasiera batean latinak ez zuen artikulurik. Agian artikulua zituen grekoaren eraginez-edo, antzeko determinatzaileak erabiltzeko beharra sentitu zen; horretarako latinez zeuden hitz batzuk egokitu ziren. Izan ere, erakusleen gehiegiko erabilerak artikulua bihurtu zituen. Gaztelaniz eta frantsesez *ille*, *illa* ('hura') adjektibo erakuslea dugu gaztelaniz *el*, *la* eta frantsesez *le*, *la* eman dituen. Gaur egungo artikulua mugagabea *unus* ('bat') zenbatzailetik dator.

Latineko neutroa: latinez hiru gramatika-genero desberdintzen dira, genero naturalarekin zerikusirik izan behar ez dutenak: maskulinoa, femeninoa eta neutroa (*ventus* maskulinoa da, *terra* femeninoa, *tempus* neutroa). Noizbait neutroak bizigabeak izendatu baditu ere (maskulinoa eta femeninoa bizidunentzat erabiltzen zen bitartean), K.a. I. mendean izen askok ez zuten banaketa honekin zerikusirik. Bi generotako sistema bat garatzen doa (maskulinoa eta femeninoa) frantsesean eta gaztelanian ikusten denez<sup>15</sup>.

## 10. Lexikoa eta semantika

Hizkuntza erromaniko baten lexikoak osagarri asko ditu eta hitz guztiak ez datoz latinetik. Hizkuntza hauek asko hartu dute aurrerromatar hizkuntzetatik (substratoa), latinizatutako zonetan ezarritako herriek hitz egiten zituzten hizkuntza germaniarretatik (superestratoa) eta inguruan edo erromanikoekin kontaktuan egon diren hizkuntzetatik (arabismoak, amerindiarrak, galizismoak, okzitanierismoak, katalanismoak, helenismoak... hizkuntzen arabera). Beranduago, mende honetan batik bat, hizkuntza mota guztietako maileguak hartu dira.

Hala eta guztiz ere oinarrizko hiztegia hitz egiten zen latinetik dator eta belaunaldiz belaunaldi ahoz transmititu da, hiztunen amaigabeko katea bat dela medio, eta hau dela-eta aldaketa fonologiko batzuk jasan ditu, hauetako batzuk jada aipatu ditugunak: ondare-hitz edo hitz herrikoiak dira (*fabulari* > *hablar*, *regula* > *reja*).

---

15. Atal honetan komentatu ditugun gaiak (eta, noski, komentatu ez ditugunak) zehaztasun handiagoz daude, dagozkien kapituluetan, honako liburu hauetan: Penny 1993, Iordan eta Manoliu 1972 I. liburukia, Lausberg 1970 II. liburukia.

Baina kultismoak ere kontuan izan behar ditugu, hots, hizkuntza erromanikoek idazkera dela medio latinetik zuzenean maileguan hartutako hitzak. Azken finean hizkuntza erromanikoentzat latina beti ama-hizkuntza izan da behar lexi-koak egon direnean; latinismoak oso baliagarriak izan dira zientzia- eta merkataritza-terminologia berriak planteiatzen zituen beharrak asetzeko. Mailegu hauek ez dute ondare-bozen bilakaera jasan (gehienez aldaketa txikiak bukaeretan gaztelania eta frantsesaren morfologi-egiturei egokitzeko: *fabula* > *fábula*, *regulare* > *regular*). Hortaz, latinezko hitzak gaztelania edo frantsesera bide ezberdinetatik hel daitezke: transmisio bikoitzeko kasuak bikote deitzen dira, orokorrean desberdintasun semantikoa aurkezten dutelarik: forma herrikoiak esanahi bilakatua izan ohi du, forma kultu edo erdikultuak latinezko zentzua gordetzen duen bitartean.

*collocare* > colgar, colocar  
*frigidum* > frío, frígido  
*integro* > entero, íntegro  
*litigare* > lidiar, litigar

*directu* > droit, direct; derecho, directo  
*fragile* > frêle, fragile  
*nativu* > naïf, nativ  
*legale* > loyal, légal  
*pensare* > peser, penser; pesar, pensar

Frantsesez batzuetan forma-diferentzia nabarmenak daude bikoteetako ordezkari herrikoiei eta kultuen artean: *eau* / *aquatique* (< lat. *aqua*); *sûr* / *securité* (< lat. *securu*).

Gaztelaniak erdikultismoak ere baditu; hitz hauek, berandu sartu direlako edo dena delakoagatik bilakaera osorik ez dutelako izan, kultismoek baino aspektu bilakatuagoa aurkezten digute, baina ez hitz herrikoiek bezainbestekoa: *saeculo* > *siglo* (\**sejo* eman behar zukeen), *titulu* > *tilde*, *virgine* > *virgen*, etab. Latinezko etimo batzuetatik ondare-hitza, semilkultismoa eta kultismoa geratu dira: *regular* (< *regulare*), *regla* (< *regula*), *reja* (< *regula*); *aplicar*, *plegar*, *llegar* (< *aplicare*-tik guztiak).

Noski, latinezko hitz guztiak ez dira gordetzen hizkuntza erromaniko guztietan. Latinezko hitz batzuk bakarrik hizkuntza batean gordetzen dira, beste batzuk hainbat hizkuntzatan azaltzen dira eta azkenik panerromanikoek Erromaniaren parterik handienez diraute bizirik. Jordan eta Manoliuk (1972: 69) honako hau azaltzen dute:

Se puede afirmar que el número de las palabras latinas directamente heredadas de cada lengua románica es de unas 2.000. De los 6700 vocablos latinos de carácter patrimonial que registra el *Romanisches Etymologisches Wörterbuch* de Meyer-Lübke, 1.300 (casi un 20 %) son pan-románicos, 3.900 (aproximadamente un 60 %) se han conservado sólo en algunas, y 1.500 (algo más del 20 %) en una sólo lengua románica.

Erromantzeetan arrazoi ezberdinengatik desagertu diren latinezko hitzak ere badaude: herrikoiagoak edo afektiboagoak ziren jatorrizko hitzen konkurrentziak baztertu dituztelako, beste eskualde batzuetatik ekarritako hitzek ordezkatu dituztelako, homofonia ekiditeko... Hona hemen adibide batzuk.

*habenae* ('aho-uhalak') hizkuntza erromaniko guztietan galdu da, agian *avena*-rekin ('oloa') sortzen den homofoniagatik (hizkuntza zeltikoetan, ordea, mailegu bezala gordetzen da). Erromantzean *retinere*-ren eratorri batek ordezkatu zuen (\**retinae* > fr. *rênes*, gazt. *riendas*, it. *rédiñi*, etab.).

*Bellum* ('guda') *bellus*-ekin ('ederra') zuen homofoniagatik desagertzen da. *Guerra* edo *guerre* hitzak mendebaldeko germanieratik datoz (*werra* 'liskarra, borroka').

*Caupo*, 'ostalaria' erromantze guztietan desagertu zen (latinetik germanierara mailegu bezala pasatu bazen ere, bere esanahia zabalduz alemanierazko *kaufen* 'erosi' eman arte).

Hitzen bilakaera semantikoa ohikoa da, noski; ondare-hitzez, bilakaera fonetikoaz gain, zentzu aldaketa ere jasaten dute:

*Denariu*: erromatar txanpona, lit. 'hamarrekoa' (10 aseko denario bat osatzen baitzuten). Gaztelaniazko *dinero*-k bere esanahia zabaldu du.

*Argentu*: 'zilarra' frantseseko *argent* 'dirua' eman du.

*Cognatu*: gaztelaraz *cuñado* eman du; 'odoleko senide' > 'senide' > 'arriba / ahizparen senarra'

Azken finean aldaketa historiko batek aldaketa semantikoa eragin dezake: *coche* eta *voiture* hitzak erabiltzen jarraitzen dira gaztelania eta frantsesez baina adierazten duten kontzeptua aldatu egin da 'zaldiek tiratutako ibilgailu'-tik 'motor batek eragindako beribil'-era (kontuan hartu *coche* ez datorrela latinetik, bai ordea *voiture*). *Ordinari* 'antolatu' aditza baserri girora mugatua zen eta (agian 'ukuiluko lanak antolatu' dela medio) gaur egungo *ordeñar* 'jetzi' eman du. *Armario*ekin antzeko zerbait gertatu zen: Urrezko Mendean latinetik mailegu gisa hartu zenean *arma*-rekin zuen lotura mantendu zuen, 'armategia' izendatzen zuelarik; baina laster balio zabalagoa bereganatu zuen ('armairua').

Lexikoan gertatzen den berrikuntza modu bat esanahi desplazamenduak dira. Adibidez, latinak bazuen os 'ahoa' terminoa, hizkuntza erromanikoetara pasatu ez dena (agian gorputz fonetiko laburregia zuten hitzak baztertzeko dagoen joeragatik, edo os 'hezurra' hitzarekin zuen homofoniagatik). Honela, *bucca*-k, 'masaila' esanahia zuenak, os ordezkatu zuen 'ahoa' zentzuan (it. *boca*, fr. *bouche*, gazt., kat., port. *boca*). 'Sua' adierazteko latinak indoeuropar hitz zahar bat erabiltzen zuen: *ignis*; etimologia ez hain ziurra duen *focus*-ek, ordea, 'su domestikoa' izendatzen zuen (*ara*-k jainkoarena adierazten zuen bezala). Latin herrikoian *focus*-ek *ignis*-en zentzua hartu zuen eta azkenean ordezkatu egin zuen. Hizkuntza erromaniko guztiek *focus* honen oinordekoak aurkezten dizkigute (> it. *fuoco*, fr. *feu*, gazt. *fuego*, port. *fogo*, errum. *foc*). *Ignis* bakarrik kultismoetan geratu da (*ígneo*, *ignición*, *igné*, *ignifuge*).

*Manducare* hitza ('jan') egile komiko eta satirikoez baino ez zuten erabiltzen (*Manducus*-etik dator, eta fartsetako pertsonaia tipikoa zen tripontziaren izena zen hau), *edere* ohiko formaren orde. Hortaz oso erabilera eremu baldarrekoa zen, animalien jateko era adierazteko erabiltzen zelarik. Baina azkenean hainbeste zabaldu zen, non fr. *manger* eman baitzuen; gazt. *comer*, ordea, *edere*-ren forma konposatu batetik dator (*comedere*), baina Urrezko Mendean latinezko *manducare* hitz barregarri bezala hartu zen (*manducar*).

Latinez *testa* hitzak 'teila, adreilua, tramankulu puska' adierazten zuen, baina herri-hizkuntzan 'buru' izendatzeko erabiltzen hasi zen, eta hortaz gaur egun fr. *tête*, it. *testa*. Gaztelaniako *testa* italianismoa dugu; 'burua' izendatzeko ohiko hitza *cabeza* da, eta hau lat. *caput*-etik dator (+ *-itia* atzizkia). *Caput*-ek frantsesez, ordea, *chef* ematen du (honi buruzko adibide gehiago in Tagliavini 1981: 305-320).

Ohiko beste lexiko-prozedura bat elipsia da: bi hitz elkarren ondoan jartzen direnean bataren esanahia bestearenari eransten zaio eta lehenengo hitza desagertzen da. Horrela jatorrizko esamolde konposatuaren zama semantiko osoa gordetzen da:

armiño < [mure] armeniu 'arratoi armeniarra' > fr. hermine  
ciruela < [pruna] cereola 'argizari koloreko arana'  
avellana < [nuce] abellana 'Abella-ko intxaurra [Campanian]'  
truie ('zerri emea') < [porcus] trojanus, lit. 'zerri troiarra' (zerria  
egiteko errezeta bati ematen zitzaion izena)

Aldaketa semantikoen oinarrian arrazoi psikologikoak ere egon daitezke, adibidez beldurra edo kontua. Beldurrak tabua sortarazten du, hots, hitz batzuk baztertzeko beharra. Hau gertatu da gaztelaniaz 'ezker' esan nahi dutenekin, kontzeptu honen eta gaizkia edota deabruaren arteko asoziazioa dela eta. Latinezko *sinister* > *siniestro* zentzu honetan erabiltzeari utzi zitzaion eta beste balorea mantendu zuen. 'Ezker' zentzuarentzako euskaratik mailegu bat hartu zen (*izquierdo* eman zuena). Xamurragoa den hitz bat bilatzeko ahaleginak, bestalde, eufemismoen erabilera darama, batez ere heriotza, eromena, gaixotasuna, krimena eta abarrekin zerikusia duten kontzeptuei dagokienez; gaztelaniazko *matar* latin berantiarreko *mattus*-etik dator 'lerdoa, txunditua', *mattare* aditz eratorria ematen duelarik 'txunditu' (gaztelaniazko gaur egungo antzeko egitura alternatibo ezagunen nahikoa parekoa delarik, esate baterako *eliminar*, *dar el pasaporte*, *cargarse a uno*, edo euskarazko *akatu*, *garbitu*). Frantsesak ere eufemismoak maiz erabiltzen ditu: gogoratu familia politikoari ematen zaizkion izendapenak: *belle mère*, *beau frère*, etab.<sup>16</sup>

## 11. Gaskoia eta biarnesa

Okzitanierari buruz zerbait esan dugu frantsesaz hitz egin dugunean, baina datu gehiago ematea komeni dela uste dut. Okzitanieraren dialektoen artean gas-

16. Alderdi lexiko eta semantikoez ikus Penny 1993: 231-289, Tagliavini 1981: 305-320 eta Iordan eta Manoliu 1972 II. liburukia: 63-163.



koaia eta beronen aldaera den biarnesa daude. Okzitanieraren dialektoak hauek lirateke, Pierre Bec jarraituz<sup>17</sup>:

iparraldeko okzitaniera	lemosinera vivaroalpinoa auverniera
hegoaldeko okzitaniera	langedoziarra proventzera
gaskoia. Aldaera biarnesa	

Hala ere ikertzaile batzuek gaskoiaren banakotasun linguistikoa azpimarratu dute, okzitanieraren desberdina litzatekeen berezko unitatea kontsidera daitekeelakoan. Gaskoia okzitanieraren barneko entitate etniko eta linguistiko orijinala eta ezberdindua izango litzateke; izan ere Ertaroan *lengatge estranh* bezala kontsideratzen zuten Proventzako trobadoreek erabiltzen zuten koinearekin alderatzera-koan (XII.-XIII. mendeen erdialdea). Beste okzitanieretatik batik bat fonetikak desberdintzen du, baina baita bere morfologiak, sintaxiak eta lexikoak ere. Berezitasun hauek, hein batean, euskal substratuaren ondorio lirateke, gaskoiak euskararekin eta hizkuntza iberoerromantzeekin (euskararen eraginari egotzi zaizkion ezaugarriei dagokienez) dituen komunztadurak azalduko lituzkeelarik. Gainera, ugariak dira gaskoia eta katalanaren eta gaskoia eta aragoieraren arteko antzekotasunak<sup>18</sup>. Gaskoiaren sei azpidialektoen arteko bereziena kontsideratzen den biarnesak, bestalde, piriniar aragoiera eta katalanarekin kontaktu-gune ugari ditu. Hala ere Buesak 1986: 16 ondokoa dio: «difícilmente ningún bearnés, por su individualismo montañés tradicional, consentiría tal filiación».

Gaskoia antzinan Akitania deituriko zonan kokatzen da, bertan indoeuropar jatorria ez zuen hizkuntza bat hitz egiten zelarik (Pirinioen hegoaldean hitz egiten zenaren kidea, gaur egungo euskararekin hein handiago edo txikiagoan erlazonaturik egongo litzatekeena). Badirudi *Vasconia* hizkuntza ulertezin hori hitz egiten jarraitzen zuen herria latinez izendatzeko era orokorra izan zela: *Vasconia* > *Wasconia* > \**Gwascoña* > *Gascoña*.

Hortaz, Pirinioen alde batera eta bestera erromantzea euskararekin kontaktuan sortzen da; inskripzioen onomastikak eta toponimia kidetasunek ikuspegi hau sendotzen dute. Pirinioen bi aldeetan, hortaz, erromatarkuntza egon zen, baina honek ez zuen antzinako hizkuntza desagertarazi, honek menperatzen zuen lurraldea murriztu bazen ere. Erromatarkuntzak Gaskoniako zabalduan Pirinioetako bailaretan baino eragin handiagoa izan zuen, azken hauetan gaur egungo euskara emango zukeen hizkuntza hitz egiten jarraitu zelarik; salbuespena Biarnoko Pirinioa izan zen, bertara latina ailegatu baitzen<sup>19</sup>.

17. Okzitanierari buruz ikus daitezke Bec 1978 eta 1983, gaskoiari dagokionez Rohlfs 1977.

18. Gaskoiaren modalitate bat izan zen, hain zuzen, Lourdesko Ama Birjinak Bernardette artzain gazteari hitz egiteko erabili zuen hizkuntza, Buesa-k (1986: 16) gogorarazten digun bezala. Ama Birjinak erabilitako hizkuntzei buruz luzaro jardun daiteke: badirudi, adibidez, Unbeko Ama Birjina bere diszipuluari beti gaztelaniaz mintzatu zitzaiola, honek euskaraz erantzuten bazion ere.

19. Rolfhs-ek (1977: 36-37) azaltzen du eskualde honetarako Menéndez Pidalek Pirinioen hegoaldean aurkitu zuen *saltus/ager* oposaketa berbera. Bere hitzetan *ager* delako eskualde lauak erromatarren ustiapen-interesa piztu eta, honegatik, erromatarkuntza goiztiarra eta bizkorra izan zuen,

Bestalde, ezin da ahaztu Arán-eko Bailara gaskoi hizkuntzakoa dela (gaskoi-arandar eran), ultrapirinear bailara delako hain zuzen, komunikabideak Frantziarekin betidanik errazagoak izan direlarik. Mendeetan zehar, gainera, Frantziako eleiz-jurisdikzio barnean egon da, XIII. mendetik Kataluniarekin lotua egon bada ere<sup>20</sup>.

Gaskoi hizkuntzaren berezitasun linguistiko batzuk honako hauek dira<sup>21</sup>:

a) bokalarteko -ll- > -r-

bella > bèro  
gallina > gario  
illa > era (artikulua)

b) bukaerako -ll > -t, -č

bell(u) > bèt, bèč  
castell(u) > castèt  
ill(u) > et (artikulua)

c) latinezko bokalarteko -n- galtzea:

luna > lùo  
una > ùo  
seminare > semiar

d) hasierako f-aren aspirazioa (gaztelanian baino orokorragoa), zona batzuetan galtzera heldu zelarik. Rohlfs-ek f-aren galera elebitasunarekin lotzen du, euskarak ez baitu kontsonante hau ezagutzen:

festa > hèsto  
focu > houèc  
fructu > hrùto, herùto  
frater > hray, rrai,  
flore > hlor, ehloù  
afamatu > ahamàt

e) hasierako r dardarkari anikoitzak protesi bokalikoa hartu ohi du, normalean a. Fenomeno orokor hau aragoieran ere gertatzen da, eta euskararen latinismoetan ikus daiteke, hitz hasierako r aurrean bokal protetiko bat jartzen baita (*erota*,

---

hirien fundazioa ekarri zuelarik. *Saltus*-a delako eskualde menditsuak, ordea, ez zuen erromatarrengan hainbesteko interes ekonomikorik piztu eta eskualde honetan bizi zirenak ez ziren bereziki beligeranteak izan erromatarrak molestatzeko; honek guztiak aurrerromatar biztanleriaren bizimoldeen eta kulturaren iraupena erraztu zuen. Hizkuntza indigenen eta latinaren arteko elebitasuna eskualde lauan sortzen da, hiriko fenomeno bat da, hirietatik zabaltzen eta Inperioaren interes ekonomikoekin loturiko gizarte-klase meneratzaileetatik sortzen dena; beranduago latina nekazaritza-nukleotara ailegatu zen, mendialdeko herrixketako biztanleek arbasoen hizkuntza luzaragoan mantendu zutelarik.

20. Viant 1987 lanak izenburu esanguratsua du, gure ustez: *L'occitan gascon en Catalogne espagnole. Du vernaculaire au formel*. Gaskoi-aranerari buruzko ikerketa zehatz bat: Coromines 1991.

21. Abibideak Rohlfs 1977 lanetik atera ditugu; kontuan hartu egileak gaskoiko hitzentzako hemen koptatzen dugun frantseseko ortografia erabiltzen duela. Hortaz, houèc [hwek] edo "uec" irakurri behar dugu, adibidez.

*errege, arrosa*). Pirinioetako bi aldeetan aurkitzen dugun fenomeno hau antzinako euskararekin erlazionatu da.

rivu > arríu  
rota > arròdo  
racemu > arrasìm

f) Latin edo erromantzezko *au* diptongoaren kontserbazioa (*causa* > *causo*, *tauru* > *tàure*), okzitaniera guztian gertatzen dena. Rolfhs-ek euskararen latinismoek mantentzen duten diptongo horrekin erlazionatu du (*causa* > *gauza*).

g) *u* > *ü*: galoerromantze guztian eta baita gaskoian ere gertatzen dena. Gaskoiaren eraginari egotzi zaio zubereran gauza bera gertatzea.

h) Biarnon (gainontzeko gaskoietan ez bezala) bokal arteko ahoskabeak mantentzen dira (*p, t, k*). Ezaugarri hau biarnesak aragoieraren subdialekto batzuekin amankomunean dauka (aragoieran ere ezaugarri minoritarioa da, bailara altuetara mugatua):

fata > hato  
formica > fromica > arroumico  
capanna > capàno

Fenomeno hau euskaran latineko maileguetan gertatzen den ahoskabeen iraunkortasunarekin erlazionatu da (*rota* > *errota*, *pace* > *pake*, *ripa* > *erripa*). Pirinioar erromantzeak aurkezten duen ezaugarri honek euskararen eraginarekin zerikusia izan dezake, mendebaldeko Erromania guztian den ahostun bihurtzeko joera geldiaraziz.

Gainera, ahoskabeak mantendu diren zonetan beste fenomeno bat nabarmentzen da: *p, t, k* kontsonanteak ahostun bihurtu dira *m, n, l*-ren atzetik daudenean:

blanca > blàngo  
alta > hàudo  
temperare > trembá

Berdin gertatzen da aragoiera garaiarekin: *campana* > *cambana*, *brincare* > *bringar*. Fenomeno hau euskaraz gertatzen den berberarekin erlazionatu da (*hilgo*, *egongo*).

Argi dago Pirinioen bi aldeetara fenomeno fonetiko amankomunak eta antzeko aurrerromatar elementu lexikoak daudela. Gainera, Pirinioen muturretako bi aldeetan hizkuntza berberak hitz egiten jarraitzen da: mendebaldean euskara eta sortaldean katalana. Buesak (1986: 5) Pirinioak ez zirela muga zurruna azaltzen du; bertako bailarak alde bietako komunikazio guneak zirela eta ez dutela muga linguistiko zehatzik osatzen dio.

## 12. Nafar erromantzea

Lerro batzuk eskainiko dizkiogu, azkenik, euskarekin kontaktuan garatu zen beste erromantze bati: nafar erromantzeari. Ez dugu aipatuko Ertaroko Nafarroaren egoera linguistiko korapilatsua<sup>22</sup>; argi dagoena da Pirinioetako nafar bailarak euskaldunak izan zirela mende askotan zehar. Nafarroako erromantzea latinaren bilakaeraren ondorioz sortzen da; erregearen eta monasterioen administrazioek erabili zuten (Mendebalde osoan gertatzen zen bezala) eta Birkonkistarekin batera zabaltzen joan zen.

Ikerlariek Nafarroako hizkera erromanikoa *nafarraragoiera* bezala izendatu ohi dute, Aragoiko erromantzearekin identifikatuz. Nafarroako eta Aragoiko erromantzeen amankomuneko ezaugarriez gain<sup>23</sup>, gogoratu beharra dago orain dela gutxi arte aragoiar dialekto batez hitz egitea posible zela<sup>24</sup>, gaur egun gainbehera gorrian badago ere; Nafarroan ordea ez da nafar dialektorik geratzen, lekuan lekuko ezaugarri batzuek zipriztindutako gaztelania baizik.

Nafar erromantzearen jatorrizko nukleoa Zangotza eta Leireko zonan kokatzen da, X. mendearen hasieran. Testuinguru honetan Leireko monasterioa zen Nafarroako kultur-erdigunerik garrantzitsuena, Nafarroa euskalduneko periferiaren eskualderik erromatartu eta kristautuena hain zuzen ere. Erromantze hau gorteari eta erresumaren giro ofizialei ere lotuta agertzen zaigu (gortea ez zen garai hauetan batere egonkorra izan, Iruñea, Lizarra, Olite, etab. izan baitziren beronen egoitza). Erret-kantzelaritzako hizkuntza ofiziala bihurtua, nafar erromantzea erresumaren txoko guztietara ailegatzen zen, baina bakarrik goi mailako gizarte-klaseek ezagutzen zuten, hots, halabeharrezkoa zutenek. Ezin dugu, hortaz, latinak eta gero erromantzeak inbaditutako nafar lurralde euskaldun batez hitz egin. Eskualde honetako erromantze propioa aurrera doa euskal lurraldean Nafarroako erresumaren hedakuntza politikoarekin batera, X. mendearen hasieratik, eta are haratago ere, Ebro eta Errioxarantz. Zabalkunde honek, ordea, erresumako hitzun kopuru erlatiboki txikia ukitzen du: erromantzea talde baten hizkuntza da, lurralde batena barik. Ertaroan zehar, kurioski, Nafarroa guztian euskara hitz egiten zen (biztanlegoaren gehiengoa elebakarra zen), baina dokumentazio guztia, zuzenbide publiko eta pribatu guztia, erlazioak, kontuak, testu historikoak, dena latinez eta (XIII. mendearen hasieratik) eratzen ari den erromantzez idazten da. Erromantze hau propioa zen, minoria meneratzailearen bigarren hizkuntza eta Nafarroako erresumaren hizkuntza ofiziala.

Nafar erromantzeak, ordea, gaztelanizazio bizkorra jasan zuen, prozesua —dokumentuetan ageri den bezala— XV. mendearen bukaereldirako burutua zelarik, hots, Gaztelak Nafarroa konkistatu baino lehenago (gogoratu Fernando Katolikoaren garaian gertatu zela hau, 1512an). Ez da erraza azaltzea zergatik

---

22. Ikus González Ollé 1970: 45-46. Egiten dudan nafar erromantzearen karakterizazio laburrerako artikulu honetan oinarritzen naiz.

23. Biak batzeko faktore historikoak izan ziren, Nafarroa eta Aragoi garai batzuetan entitate politiko bakarra izan baitziren: Antso Handiarekin (1000-1035) gaur egungo Hueskako iparraldeko nukleoa piriniotarrak (Aragoi, Sobrarbe, Ribagorza) Nafarroa barnean zeuden. Geroxeago Aragoi erresuma bihurtu zen, 1076 eta 1134 artean Nafarroako erregeak Aragoikoak ere bazirelarik.

24. Ikus aragoierari buruzko atala in Zamora Vicente 1985: 211-287.

mantendu zituen Aragoik (zeinak Gaztelarekin askoz ere erlazio estuagoak eduki baitzituen Ertaroan zehar) berezitasun linguistikoak luzaragoan, baina, egia esan, aragoierak hedapen handiagoa eduki zuen eta Nafarroako erromantzeak ezagutu ez zuen erabilera literarioa. Literatura aldetik Nafarroakoak hutsune nabarmena aurkezten du eta honek erraztasun handiak eman zizkion gaztelau literaturaren difusioari; hauxe izan zen, hain zuzen, Penintsula gaztelertzeko bideetako bat.

XVI. mendearen hasieratik gaztelertze honek euskararen muga iparralderantz bultzatuko du. Gaur egun Nafarroan hitz egiten den erromantzea, hortaz, gaztelania da, Ertaroko nafar erromantzetik datozen ezaugarri gutxi batzuk dituen, honi euskarak (substratu eta adstratu bezala) eskaini dizkion berezitasunak gehitu beharko genizkiokeelarik, zonaren arabera, noski.

González Ollék (1970a: 55) dio Glosa Emilianenseak nafar erromantzearen lehenengo manifestazioa direla, zein modalitate linguistikotan idatziak dauden esatea zaila dela aitortzen badu ere. Menéndez Pidakék Errioxako X. mendeko hizkera dela uste badu ere, Ollérentzat garai hartan errioxar hizkera Nafarroako berbera izango litzateke, oraindik nafar erregeen menpean baitzegoen<sup>25</sup>.

Hona hemen nafar erromantzearen ezaugarri batzuk (ikus Saralegui 1977):

a) Hasierako *f*- mantentzen da beti: *fago*, *filio*, *fastiar*, *forniguero*.

b) Gaztelaniaz diptongatzen ez duten aditz-formen diptongazioa: *viengo*, *tiengo*, *mantienga*, *siervo*.

c) Hasierako *pl-* *fl-* *cl-* gordetzen dira kasu gehienetan: *pluvia*, *clavero*, *clamada*.

d) Aldatu gabe mantentzen da *mb* multzoa, batzuetan *nb* grafiarekin: *palonbar*, *palombar*.

## Bibliografia

- Bec, P., (1978): *La langue occitane*, PUF (4. arg.), Paris.  
———, (1983): *Manuel pratique d'occitan moderne*, Picard, Paris.  
Bonnard, H., (1990): *Synopsis de phonétique historique*, Sedes (5 arg.), Paris.  
Bourciez, E. eta J., (1974): *Phonétique française. Étude historique*, Paris, Klincksieck.  
Buesa, T., (1986): "Lenguas y hablas pirenaicas" in Cierbide (zuz.), 5-37 orr.  
Cantera, J. eta Yllera, A., (1974): *Esquemas de fonética histórica francesa*, Universidad de Madrid, Facultad de Filosofía y Letras, Madrid.  
Cierbide, R. (zuz.), (1986): *Lengua y literatura románica en torno al Pirineo*, Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua, Bilbo.  
Coromines, J., (1991): *El hablar de la Vall d'Aran. Gramàtica, diccionari i estudis lexicals sobre el gascó*, Curial Edicions Catalanes (2. arg.), Bartzelona.  
García de Diego, V., (1981): *Gramática histórica española*, Gredos (3. arg.), Madrid.  
García Mouton, P., (1994): *Lenguas y dialectos de España*, Arco, Madrid.  
Gargallo Gil, J. E., (1989): *Guía de lingüística románica*, PPU, Bartzelona.

---

25. Nafarroa, Aragoi eta Iparraldeko Gaztela arteko bidegurutzea izateaz gain, nahikoa goiz gaztelartu (XI. mendetik) izan zen Errioxako hizkuntzari buruz ikus Zamora Vicente 1985: 336-339, gaur egungo gaztelertak zona horretan dituen dialekto-ezaugarri zaharraren kutsua aurkezten digularik.

- González Ollé, F., (1970a): "El romance navarro", RFE LIII, 45-93 orr.  
 ———, (1970b): *Textos lingüísticos navarros*, Iruñea, Nafarroako Foru Aldundia.
- Jordan, I. eta Manoliu, M., (1972): *Manual de lingüística románica*, Gredos, 2 liburuki, Madril.
- Lapesa, R., (1968): *Historia de la lengua española*, Espelicer (7. arg.), Madril.
- Letona, X., (1996): "Iparraldeko lehengusu ezezagunak", *Argia* 1586 (VII-14), 12-15 orr.
- Lausberg, H., (1970): *Lingüística románica*, Gredos, 2 liburuki, Madril.
- Lleal, C., (1990): *La formación de las lenguas romances peninsulares*, Barcanova, Bartzelona.
- Menéndez Pidal, R., (1968): *Manual de gramática histórica española*, Espasa, (3 arg.), Madril.
- Moralejo Alvarez, J. L. "Las lenguas clásicas, origen de las lenguas románicas", in González Espelósín (arg.) *Lecciones de cultura clásica*, Servicio de Publicaciones de la Universidad de Alcalá, 13-33 orr, Madril.
- Muller, Bodo, (1985): *Le français d'aujourd'hui*, Klincksieck, Paris.
- Penny, R., (1993): *Gramática histórica del español*, Ariel, Bartzelona.
- Rohlf, G., (1977): *Le gascon. Études de philologie pyrénéenne*, Niemeyer (3. arg.), Tübingen.
- Saralegui, C., (1977): *El dialecto navarro en los documentos del monasterio de Irache*, Institución Príncipe de Viana, Iruñea.
- Tagliavini, C., (1981): *Orígenes de las lenguas neolatinas*, Fondo de Cultura Económica, Mexico.
- Universidad Nacional de Educación a Distancia, (1977): *Lingüística románica*, Ministerio de Educación y Ciencia, Madril.
- Väänänen, V. (1982): *Introducción al latín vulgar*, Gredos (1. arg.), Madril.
- Viant, A., (1987): *L'occitan gascon en Catalogne espagnole. Du vernaculaire au formel*, Maison des Sciences de l'Homme d'Aquitaine.
- Villar, F., (1971): *Lenguas y pueblos indoeuropeos*, Itsmo, Madril.  
 ———, (1991): *Los indoeuropeos y los orígenes de Europa*, Gredos, Madril.
- Von Wartburg, W., (1966): *Evolución y estructura de la lengua francesa*, Gredos, Madril.  
 ———, (1971): *La fragmentación lingüística de la Rumania*, Gredos (2. arg.), Madril.
- Zamora Vicente, A., (1985): *Dialectología española*, Gredos (2. arg.), Madril.